

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Zenbait ordenantza fiskalen aldaketa behin betiko onartzea

Udalbatzak, 2024ko urriaren 23an egindako ezohiko bilkuran, ordenantza hauen aldaketari hasierako onespena ematea erabaki zuen:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Ekonomia-jardueren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- III. epigrafean administrazio-zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Podologia-zerbitzua.
- Udal hileta-zerbitzuak emateagatiko eta udal-hilerrietan jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- V. epigrafean jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Ibilgailuak finketan espaloietatik sartzea eta bide publikoa aparkaleku eskusiborako, ibilgailuak gelditzeko eta edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzea.
- “Hirigintza-baimenak” esparruan zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.
- “Kirol-jarduerak eta -instalazioak” esparruan zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.
- Autokarabanek eta etxebizitza-ibilgailuek aparkatu eta gaua eman Alegría-Dulantzin horretarako gaitutako aparkaleku-gunean egitea arautzen duen ordenantza.

Jendaurrean egon diren bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat jotzen dira. Hona hemen, hitzez hitz:

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Alegría-Dulantzin, 2024ko abenduaren 16an

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak 19.1.a) artikuluan eta zerga hau arautzen duen uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritz, ondasun higiezinaren gaineko zerga exijituko du Dulantziko Udalak, ordenantza honen arabera. Ondasun higiezinaren gaineko zerga zuzeneko zerga erreala da; ondasun higiezinaren balioa kargatzen du ordenantza honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerriri osoan aplikatzen da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga egitatea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- Ondasun higiezinaren edo ondasun higiezin horiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesioa.
- Azalera eskubide erreala.
- Gozamen eskubide erreala.
- Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan azaldutako zerga egitateetako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezinaz ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honi dagokionez, ordenantza honetako 4. artikuluan zehaztu da zer diren landa ondasun higiezinak eta zer hiri ondasun higiezinak.

4. Ondasun higiezin bat hainbat udalerritan badago, zerga honi dagokionez, udalerriri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

4. artikulua

1. Katastrorako ez beste ezertarako, ondasun higiezinaz da izaera bera eta bakarra duen lurzatia, baldin eta udalerriri baten barruan dago, poligono batek mugatzen badu eta poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen badu, bai eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak, higiezinaz dela eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezinak dira:

- Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko araubide berezian daudenak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eskusiboari eta iraunkorrari pro indiviso atxikiak badaude. Higiezinaz elementu komunak erregelamendu bidez zehaztutako moduan esleituko zaizkie, katastro-balorazioaren ondorioetarako soilik.
- Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesio baten espazio eremua.

2. Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

- Hiri lurzorua.

Honako hau jotzen da hiri lurzorutzat:

- Hirigintzako planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatuak direnak, eta horien balioakideak.
- Lurzoru urbanizagarriak eta lurralde antolamendurako eta hirigintzako tresnen arabera urbanizatutako diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, hain zuzen ere, mugatutako esparruetan daudenak, eta mota honetako gainerako lurzoru guztiak hirigintzako tresna batek haien garapenerako arauak ezartzen dituenean.

- Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, baldin eta zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.
- b) Hiri eraikuntzak; honelakotzat hartzen dira:
 - Eraikinak, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera edozein delarik ere, eraikitzeke moduagatik guztiz eramangarriak izan arren, eta hartzen duten lurra eraikuntzaren jabearena izan ez arren; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritzako eta industriako instalazioak, adibidez, dikeak, andelak eta zamatze tokiak.
 - Urbanizazio eta hobekuntza obrak, esaterako lur-berdinketak, eta aterpe gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak, horrelakotzat hartzen direla azoka lege erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak, presak, urjauziak eta urtegiak (haien ohea barne), kiroletan jarduteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak.
 - Hurrengo apartatuan berariaz landakotzat kalifikatuta ez dauden eraikinak.
 - Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak dauden lurzoruak ez dira hiri lurrak.

5. artikulua

Zerga honen ondorioetarako, honako hauek landa ondasun higiezin izango dira:

- a) Aurreko apartatuko a) letrak xedatzen denaren arabera hiri lurztat jotzen ez diren lurrak.
- b) Landa eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikin eta instalazioak, landa lurretan badaude eta ezinbestekoak badira nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako. Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabiltzeko estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitzeke erabiltzeko materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereizezin izango baitira.

III. Salbuespenak

6. artikulua

1. Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

- a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren, udal erakundeen edo toki erakundeen jabetzakoak direnak, baldin eta defentsari, hiritarren babesari eta hezkuntzako eta presondegitako zerbitzuei zuzenean lotuta badaude. Maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauko bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz, Vías de Álava SA enpresak ustiatzen dituen errepideei, bideei eta lurreko gainontzeko bideei 2004ko ekainaren 1etik aurrera letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzen zaie, erabiltzeko ordaindu behar bada ere.
- b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak direnak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean atxikita badaude.
- c) Errepideak, bideak eta lurreko gainerako bideak, baldin eta aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.
- d) Kuadrilla, udalerrri, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak direnak, baldin eta zerbitzu edo erabilera publikokoak badira. Aurrean xedatutakoa ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoak kontzesio administratibo batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularrak irabazteko asmorik gabeko elkarteak bada eta aipatutako erakundearekin lankidetzak jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzak jarduerak. Orobat, salbuespena izango dute mendiek eta gainerako ondasun higiezinak, horien gainean herri aprobetxamenduren bat badago, eta esparru erkideko auzo mendiek.
- e) Hazkunde geldoa duten espezieez populatutako mendiak, publikoak zein pribatuak. Salbuespen hau hazkunde geldoko baso espezieei dagokie (Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren izendegiari jarraituz), hain zuzen ere batez ere zuretarako aprobetxatzen direnei, eta espezie horiekin landatutako baso sailak bakarrik, baldin eta zuhaitzen dentsitatea espeziearen berezkoa bada. Orobat, aurreko apartatuan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenen sartzan dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoaren arabera birsortzen ari diren zuhaitziak dauden eremuak ere bai. Paragrafo honetan ezartzen den salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskaera aurkeztu eta ondoko zergalditik aurrera.

- f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz estatu espainiarrak eta Vatikanok sinatutako akordioan araututakoaren arabera.
- g) Legez onartutako Eliza Katolikoaz beste elkarre konfesional batzuen ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioko 16. artikuluan ezarritakoaren ondorioz sinatutako lankidetzaz hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.
- h) Gurutze Gorriaren ondasunak eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuenak.
- i) Indarrean diren nazioarteko hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatzen zaien ondasun higiezinak, eta atzerriko gobernuenak, diplomaziako, kontsulatuko edota erakunde ofizialen ordezkarietarako erabiltzen dituztenak, elkarrekikotasuna egonez gero.
- j) Trenbideek okupatutako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, haiek geltokitarako, biltokitarako edo trenbideok ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira. Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzatarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.
- k) Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2.2.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
Halaber, salbuetsita daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatzen duenaren arabera.
Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuei, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.
Gainera, salbuetsita daude Espainiako Historia Ondareko ondasun higiezinak, Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen direnak.
- l) Erabat nahiz hein batean hezkuntza itunaren araubidean dauden ikastetxeek irakaskuntzarako erabiltzen dituzten ondasun higiezinak, hain zuzen ere irakaskuntza hitzarturako erabiltzen den azalera.
- m) Irabazteko xederik gabeko erakundeak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko eta mezenasgorako zerga pizgarrien onuradun diren erakundeen zerga araubidearenak, 4. artikuluan finkatutakoak.
Bi baldintza bete behar dira salbuespen hau aplikatuko bada: batetik, irabazteko xederik gabeko erakundeak Udalarari jakinarazi behar dio uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 16. artikuluko 1. apartatuan ezarritako hautapenari heldu diola; bestetik, foru arau horretako II. tituluaren zerga araubide bereziaren inguruan ezarritako baldintzak eta inguruabarrak bete behar dira.

IV. Subjektu pasiboa

7. artikulua

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak dira subjektu pasibo, zergadunak diren neurrian, baldin eta zerga gaia den eskubide baten titular badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu egin behar da, hargatik eragotzi gabe subjektu pasiboak zerga karga beste batzuei jasanarazi ahal izatea zuzenbide erkidearen arauen arabera.

Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

1. Ondasun higiezinaren balioa da zerga oinarria.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren katastro balioa hartuko da oinarritzat, zeina ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziatzen hartuta finkatuko den, eta ezin izango da, inolaz ere, merkatu balio hori gainditu.

9. artikulua

1. Hiri ondasun higiezinaren katastro balioan lurzorua balioa eta eraikinen balioak sartu behar dira.

2. Lurzoruaren balioa kalkulatzeko kontuan eduki behar dira eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintza eta eraikuntzako inguruabarrak ez ezik, haien izaera historiko eta artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzintasuna hartuko dira aintzat, eta eragina eduki dezaketen gainerako faktore guztiak ere bai.

10. artikulua

1. Landa lurreko ondasunen katastro balioa luraren balioak eta eraikinenak osatuko dute.

2. Landa lurren balioa kalkulatzeko haien benetako errentak edo errenta potentzialak kapitalizatu behar dira arauz ezarritako interes tasa aplikatuta, lurren emankortasuna eta dauden sailak edo aprobetxamenduak kontuan hartuta, katastroan ezarritako ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, aintzat hartu ahal izango dira ikerketaz lortutako datuak, zona edo eskualde bakoitzeko nekazaritza ezaugarri homogeenak dituzten errentamendu edo apartzerien gainekoak.

Gainera, idatz zati honen ondorioetarako kontuan hartuko dira landa lurretan egindako hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak direnak, eta, behar den kasuetan, ekoizten hasi arte pasatutako urteen kopurua ere bai. Basogintzarako erabiltzen diren landa lurren balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa.

Nolanahi ere, kontuan hartuko da aprobetxamendua handiagoa izateko ohiko produktio bitartekoak erabiltzea edo aplikatzea; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustategiaren izaera edo udalerraren ezaugarriak direla eta lurren benetako errentak edo errenta potentzialak zenbatekoak diren jakiterik ez badago, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrek eta baso berriak barne) nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta lurra ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak hartu ahal izango dira kontuan.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluan 3. apartatuan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

11. artikulua

Aipatutako katastro balioak higiezinaren katastroetan bildutako datuetan oinarrituta finkatuko dira.

Katastro balio horiek berrikusi, aldarazi edo eguneratu ahal izango dira, kasuan kasukoa, eta horretarako 13., 14. edo 15. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoa aplikatu beharko da.

12. artikulua

Landa eta hiri ondasun higiezinaren katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezinaren datu eta deskripzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

13. artikulua

1. Katastro balioak 9. eta 10. artikuluetan araututako balioesteko irizpideen arabera finkatuko dira.

2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugatuko du alde zuzenetik, indarrean dauden hirigintzako xedapenekin bat etorriz.

Dena dela, lurzoruen izaeran aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezko izango mugaketa berri hori egitea.

3. Hala dagokionean, aurreko paragrafoan aipatu diren lurzoru mugaketako lanak egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak dagozkien balioespen txostenak egingo ditu, bertan jasoz katastro balioak finkatzeko aplikatu behar diren irizpideak, balioespen taulak eta gainerako elementuak.

4. Hiri lurzoruen mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesa dutenek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta lurralde horretan zabalkunderik handiena duten egunkarrietan argitaratuko da.

5. Onartutako balioespen txostenak ALHAOn argitaratuko dira eta Udalaren ediktuen bidez jakinaraziko dira beraien ondoriozko katastro balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurreko urteko lehenengo sei hilabetean.

6. Txostenak argitaratu eta gero, haien ondoriozko katastro balioak subjektu pasibo bakoitzari jakinarazi beharko zaizkio balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.

7. Horrela ezarritako katastro balioak zortzi urtean behin berraztertu beharko dira.

14. artikulua

1. Katastro balioak Arabako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizios edo Udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo beste ingxuabar batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela udalerrri osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren katastro balioen eta merkatu balioen artean.

2. Aldaketa hori egiteko balio txosten berriak prestatu beharko dira, ezinbestean, aurreko artikuluan adierazi den bezala, eta ez da egongo hiri lurraz berriz mugatu beharrik.

3. Balio txostenak prestatutakoan aurreko artikuluan araupetu diren izapideei eta prozedurei ekingo zaie.

15. artikulua

Aipatzen ari garen katastro balioak lurralde historikoaren aurrekontu orokorreari buruzko foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.

VI. Zerga kuota

16. artikulua

1. Zerga kuota kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio. Kuota likidoa kalkulatzeko legez ezarritako hobarien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Hiri ondasun higiezinaren karga tasa ehuneko 0,32 izango da, salbu eta egoitzarako ondasun higiezinena, baldin eta ez badira subjektu pasiboaren egoitza edo hirugarrenena, alokairuan emanda edo erabilera lagata, urriaren 26ko 12/2016 Foru Arauak ezarritakoaren arabera, zeinak aldatu egiten baitu Ondasun Higiezinaren Zergei buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15. artikulua; higiezin horiek ehuneko 50eko errekarua izango dute zergaren kuota likidoaren gainean.

3. Landa ondasun higiezinaren karga tasa ehuneko 0,586 izango da.

4. Katastro balioak aldi berean gabe jarraiki finkatzen, berrikusten edo aldatzen badira, katastro balio berria duten ondasunei karga tasa bat aplikatuko zaie eta katastro balio berria ez dutenei beste bat.

17. artikulua. Ohiko bizilekua ez direlako errekarua duten bizileku erabilerarako ondasun higiezinak

Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen —alokatzearen edo erabilera lagatzearen bidez— ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak 16.2. artikuluan ezarritako errekaruari lotuta egongo dira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezinak joko dira katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak ere sartuko dira, baldin erregistroko finka bakarra badira.

Errekaruaren subjektu pasibo izango dira zerga honen subjektu pasiboak.

Errekarua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da, eta kuotarekin batera eskatuko da.

Ohiko bizilekua den ondasun higiezinaren egoera errekarua duen ondasun higiezin bateraaldatzeko, honako prozedurari jarraituko zaio:

Ondasun higiezinaren subjektu pasiboak jakinaraziko zaie errekarua duen bizileku erabilerako etxebizitzaren titularrak direla, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiteko aukera izan dezaten, ondasun higiezinaren egoera behin betiko zehaztu baino lehen.

Udalak, alegazioak aztertu, eta errekarua aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko ebazpena emango du. Erabaki hori subjektu pasiboari jakinarazi, eta dagokion kitapena bidaliko zaio.

Ondasun higiezinaren errekaruari lotutako bizileku erabilerako etxebizitzaren erroldan sartuta geratuko da.

Ondasun higiezinaren errekaruari lotutako bizileku erabilerako etxebizitzaren erroldan sartutakoan, eta ohikoa ez den erabilerako egoeran den bitartean, batera igorriko dira zerga eta haren errekarua, banaka jakinarazi beharrik gabe.

Udalak, zergetako bere datu baseetan eta biztanleen udal erroldan jasotako informazio propioa ustiatuz, ofizioz aldatuko du errekarua duen etxebizitza baten egoera. Udalak ofizioz emandako bajak titularrei jakinaraziko dizkie.

18. artikulua. Ohiko bizilekutzat jotzea

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin zerga sortzen den egunean udalaren biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezinaren pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Udal erroldan jaso gabeko egiazko ohiko bizilekua egiaztatzeko, udalerrian eskumena duten lurralde Administrazioetako edozeinetan egindako zerga aitortpenak erabili ahal izango dira.

Zerga aitortpen horietan, ohiko bizilekutzat deklaraturata agertu beharko da zerga honi lotutako bizilekua.

Zerga aitortpenen arteko kontraesanik izanez gero, edo zerga aitortpenik egiteko betebeharrak ez bada, subjektu pasiboaren, errentariaren edo lagapen hartzailearen beste frogabide batzuk aurkezteko aukera izango da.

Zerga aitortpenak eta bestelako frogabideak balioztatzeko, txosten idatzi arrazoitua egingo da, eta txosten horrek oinarrituko du eskumena duen udal organoak hartutako erabakia.

Egiazko ohiko etxebizitzat hartuko da egiaztatzen bada ondasun higiezinaren ematen dela urtean 4 hilabete baino gehiago.

Bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titulartasuna Administrazio publiko batena bada, aski izango da Administrazio horrek aurkeztutako deklarazioa, ondasun higiezinaren egiazko bizilekutarako direla jotzeko.

Udalak, hala ere, Administrazio titularri errekeritu ahal izango dio egiazta dezala ondasun higiezin horiek bizilekutarako direla.

19. artikulua. Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, xedea dela kausa, errekarua atxikitzeari lotuta ez daudenak

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekaru hau aplikatzeatik, baldin inguruabar hauetako bat betetzen badute:

- Zerga horretan zerga hobariren bat dutenak.
- Ostatatze, ostatu, hotel eta antzeko jardueri atxikitakoak.
- Bere helburuen artean ondasun higiezinaren errentan ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.
- Ikasleei errentan emandakoak.
- Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak. Era berean, errekarutik salbuetsita egongo dira ondorengo arrazoi hauetako batengatik beste etxebizitza batera aldatu beharrean diren pertsonen titulartasuneko etxebizitzak: mendekotasun egoeran egoteagatik; edo hura eta haren ezkontidea, izatezko bikoteko kidea, edota odolkidetasunezko, ezkontzako nahiz adopziozko ahaidea (hirugarren mailako ahaidetasuneraino) artatzeagatik.
- Alokatzeko moduan jartzeko konponketa edo egokitzapen handi batzuk egin beharra duten higiezinak, higiezinaren titularrak hartarako behar adina dirurik ez badu. Inguruabar horiek balioztatzeko txostena Udaleko teknikariek egingo dute.
- Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako direnak. Salbuespen hau aplikatzeko, nahitaezkoa izango da higiezinaren katastroko titularra izatea, edo, hala badagokio, jardueraren titularri errentan emateko kontratu bat izatea, urtebetekoa edo luzeagoa. Kontratu idatziz jasota ez badago, kontratu hori badela egiaztatuko beharko da, egoki irizten diren frogabideak erabiliz.

- h) Udaldiko behin-behineko bizilekurako direnak. Salbuespena aplikatuko da titularrak udalerriko biztanlea ez denean eta egiaztatzen badu urtean, gutxienez, 90 egunean erabiltzen duela. Salbuespena etxebizitza bakar baten titularrak izanez gero aplikatuko da, eta aldi baterako egoitza erabiltzea egiaztatzea dezakete uraren edo bestelako kontsumoaren bidez.
- i) Oinordetza bidez eskuratutako etxebizitzak, eskuratu direnetik bi urte igaro ez badira. Testamenturik ez dagoelako oinordetza adierazpen bat izapidetu behar denean, epea bost urteko izango da, eskuratze egunetik.
- j) Sortzapen dataren aurretiko ekitaldian eskualdatutako etxebizitzak.

VII. Hobariak

20. artikulua. Hobariak

1.- Hobari hauek ezarri dira:

a) Naturagune babestuetan landatutako landa-lurrek edo basoek ehuneko 95eko hobaria izango dute zergaren kuotan.

b) Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, baldin eta interesdunek obrak hasi aurretik eskatzen badute, higiezinak urbanizatzeko, eraikitze edo sustatzeko enpresen jardueraren xede diren higiezinak, obra berrikoak zein horien parekoak izan daitezkeen birgaitzeak, eta beren ibilgetuaren ondasunen artean ez badaude.

Hobaria aplikatzeko epea obrak hasi eta hurrengo zergalditik obrak amaitu osteko zergaldira artekoa izango da, baldin eta epealdi horretan benetan urbanizazio- edo eraikuntza-obrak egiten badira, eta inola ere ez hiru zergaldikoa baino luzeagoa.

Lursailak urbanizatzeko obregatik aipatu hobaria izan duten pertsonak lursail horietan higiezinak sustatzen badituzte, aplikazio-epea bost zergaldikoa izango da.

Hobaria interesdunek eskatu beharko dute, honako agiri hauek aurkeztuta:

- Kasuan kasuko urbanizazio- edo eraikuntza-obrak hasteko aurreikusitako datari buruzko adierazpena.
- Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako sozietatearen estatutuak, enpresa higiezinak urbanizatzeko, eraikitze edo sustatzeko jardueran aritzen dela egiaztatzeko.
- Jabetza-eskritturaren kopia konpultsatua, Jabetza Erregistroaren ziurtagiria edo katastroko alta, hobariaren xede den higiezina bere jabetzakoa dela egiaztatzeko.
- Sozietateko administratzailearen ziurtagiria edo Zerga Administrazioako Estatu Agentzian sozietatearen gaineko zergaren ondorioetarako aurkeztutako azken balantzearen fotokopia konpultsatua, hobariaren xede den higiezina ez dela ibilgetuaren zati egiaztatzeko.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergaren altaren edo azken ordainagiriaren fotokopia konpultsatua edo zerga horren salbuespenaren justifikazioa.

c) Behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan, babes ofizialeko etxebizitza eta horien balioekideak (sozialek) zergaren kuotan ehuneko 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, autonomia-erkidegoko araudiaren arabera. Eskatzailea etxebizitzaren titularrak izan eta udalerrian erroldatuta egon behar da.

Hobaria interesdunak eskatuta emango da, eta eskaria hobariak iraungo duen hiru zergaldiak amaitu aurreko edozein unetan egin ahal izango da, eta, hala badagokio, eskatu eta hurrengo zergaldian izango ditu ondorioak.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren ziurtagiria eta etxebizitzaren titulartasuna egiaztatze dokumentazioa.

d) Kuotan ehuneko 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute nekazaritza-kooperatiben eta ustiapen komunitarioko kooperatiben landa-ondasunek, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako baldintzetan.

e) Hobari pertsonalak:

Etxebizitzaren jabe diren zerga honen subjektu pasiboek, baldin eta etxebizitza horiek beren ohiko bizileku badira, hobaria izango dute zergaren kuotan, hurrengo zenbakietan adierazitako baldintzetan eta bertan ezarritakoaren arabera.

Hobaria zergaren kuota osoari aplikatuko zaio, familia-unitatearen diru-sarreraren arabera, eta atal honetako 4. paragrafoan jasotako taulari jarraikiz.

Hobariak etxebizitza bakarraren jabe diren eta, gainera, ohiko bizileku duten familia-unitateei bakarrik aplikatuko zaizkie, zerga-legeriak zehaztutako moduan. Familia-unitatea osatzen duten kideen titulartasuneko ondasun higiezin guztien katastro-balioa ezingo da 420.000 eurotik gorakoa izan.

Hobariaren zenbatekoa familia-unitatearen errenta-tartearen eta etxebizitzan bizi diren familia-unitateko kideen kopuruaren arabera izango da, taula honi jarraikiz:

	0. T	1. T	2. T	3. T	4. T
Kide-kopurua	≤14.500 euro	14.501-21.000 euro	21.001-29.000 euro	29.001-38.000 euro	38.001-42.000 euro
1	ehuneko 90	ehuneko 75	ehuneko 10	ehuneko 0	ehuneko 0
2	ehuneko 95	ehuneko 80	ehuneko 50	ehuneko 0	ehuneko 0
3	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 80	ehuneko 50	ehuneko 0
4	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 80	ehuneko 50
5 edo gehiago	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 90

Taulan ageri diren errenta-tarteak eta ehunekoa familia-unitateko kide guztien errentak batuta aplikatuko dira. Horretarako:

1.- Errentatzat zerga-oinarria joko da (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezkiaren zerga-oinarria), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 69. artikuluan aipatzen diren konpentsazio-pentsioen eta elikagaiengatiko urteko ordainketen murrizketan murriztua. Ondorio horietarako, atal honetan aipatu hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urtean eskuratutako errentak hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan aipatu errenta zehazteko, errenta-aitorpena hartuko da kontuan, eta, hori aurkezteko betebeharrak ez badago, hura egiaztatze aukera ematen duen edozein informazio.

2.- Familia-unitatzat azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa joko da.

Zergaren subjektu pasiboek hobaria aplikatzeko eskatu beharko dute, haren xede den higiezinaren identifikatzeko ematen den inprimakia aurkeztuta. Horrekin batera, familia-unitatearen zerga-onuraren aurreko urteko errenta-maila egiaztatze dokumentazioa aurkeztu beharko dute, familia-unitateko kide guztiena, edo hura egiteko betebeharrak ez dagoela egiaztatze dokumentazioa. Hala ere, Udalak, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, justifikazio hori eman ahal izango du ahal den neurrian, hobariaren tramitazioa errazteko. Era berean, familia-unitateko kide guztien jabetzako higiezinak ez dutela 420.000 euroko balioa gainditzen adierazteko zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Hobaria bateraezina izango da artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin.

Hobaria aplikatzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauan hobariari buruz egiten den legezko aurreikuspena bete beharko da.

f) Zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hobaria ezarri da Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak araututako "Bizigune, Etxebizitza Hutsaren Programa" izeneko etxebizitza hutsaren programaren esparruan lagatzen diren ondasun higiezinatarako eta foru- edo udal-etxebizitzaren plan eta programetarako.

g) Ohiko etxebizitza izatera bideratutako ondasun higiezinetan eguzkitik eratorritako energiaren aprobetxamendu elektrikorako sistemak instalatu badira, autokontsumorako, higiezinok zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hobaria izango dute, instalazioa amaitu osteko 3 zergaldietan. Hobaria aplikatzeko, instalazioek administrazio eskudunak emandako homologazioa izan beharko dute.

Aprobetxamendu elektrikorako sistemek gutxienez 3 kW-eko potentzia izan beharko dute.

h) Zergaren kuotaren ehuneko 25eko hobaria ezarri da sistema fotovoltaikoak auzokide-erkidegoetan edo energia-komunitateetan parte hartzen duten higiezinetan jartzeagatik, instalazioa amaitu eta hurrengo 3 zergaldietan. Erkidegoa osatzen duten etxebizitzetako bakoitzari aplikatuko zaio. Hobari hau bateraezina da artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin.

i) Ohiko etxebizitzara bideratutako ondasun higiezinak A motako eraginkortasun energetikoaren etiketa badute, zergaren kuotaren ehuneko 50eko hobaria izango dute; B motakoek, berriz, zergaren kuotaren ehuneko 25ekoa. Hobariaren iraupena eskatu eta hurrengo 3 zergaldietan aplikatuko da, ziurtagiriak indarrean jarraituz gero. Hobari hau bateraezina da artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin.

j) Artikulu honen h) eta i) ataletan ezarritako aginduak betetzen dituzten ondasun higiezinak hobari biak eduki ahal izango dituzte, baina ez aldi berean, gehienez 6 zergalditan gutzira.

2.- Legeak espresuki kontrarik xedatu ezean, zerga-onurak eskatu egin behar dira; horretarako, eskatzaileak Alkatezari bidali beharko dio eskabidea, zerga-onurak jasotzea badagokiola justifikatzeko nahikotzat jotzen dituen oinarriak adierazita.

Oro har, zerga-onurak onartzeak ez du atzeraeraginezko izaerarik izango eta, ondorioz, interesdunak eskaera egin ondoren lehen aldiz zerga sortzen den unetik aurrera hasiko dira ondorioak izaten.

Eskaera egiteko unean subjektu pasiboak zerga-betebeharrak egunean izan ezean, zerga-onura izateko eskaera ukatu egingo zaio. Ukatzeko ebazpena arrazoi horretan oinarrituko da espresuki, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Hobari guztiak urtero eskatu beharko dira, zenbait zergalditarako berritze automatikoa onartzen denean salbu, eta hobariaren urtean indarrean dagoen zerga-ordenantza behin betiko onartutakoan emango dira.

Eskatzaile guztiei eskabide-eredua emango zaie. Eredu hori nahitaez aurkeztu beharko da, kasu bakoitzean eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Toki-administrazioak, ofizioz, beharrezko datu guztiak egiaztatuko ditu, eta beste erakunde batzuei laguntza eskatuko die datuok egiaztatzeko.

Eskabidea aurkezteko eperik zehazten ez den kasu guztietan, hobaria aplikatuko den urteko martxoaren 31ra arteko epea ezarri da.

VIII. Sortzapena

21. artikulua

1. Zerga urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean; zergaldia egutegiko urtea izango da.

2. Zergapeko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, ekonomikoek eta juridikoek hurrengo zergaldian sortuko dituzte ondorioak, eta horretarako ez da ezinbestekoa izango bidez administrazio egintzak jakinaraztea.

3. Aurreko apartatuan ezarritako ondorioetarako ondokoak hartuko dira ondasun higiezinak aldaketatzat:

- eraikuntza berriak egitea, eta lehendik dauden eraikinak handitzea, arraustea edo irastea, osorik zein zati bat. Ez da aldaketatzat joko eraikinak artatzeko edo mantentzeko obrak edo konponketak egitea, aldizkakoak ez izan arren, ez eta eraikineko ornamentuak edo apaingarriak soilik ukitzen dituztenak ere. Halaber, aldaketa fisikotzat joko dira landa ondasun higiezinak sailetan edo aprobetxamenduetan gertatzen diren aldaketak.
- higiezinak erabilerara edo xedea aldatzea aldaketa fisikorik eragin gabe.
- ordenantza honetako 3. artikuluan aipatzen diren eskubideak eratzeko edo haien titulartasuna aldatzea, ondasun higiezinak bereiztea edo zatitzea, eta biltzea.

Gozamen eskubide erreala, azalera eskubidea edo administrazio kontzesioa eratzeko edo halako baten titulartasuna aldatzeko eragiten duen aldaketa juridikoa ez da egongo jakinarazi beharrik eragiketarako interesdunak aitortzen batean aurkeztutako agiriak soilik hartzen badira kontuan.

22. artikulua

1. Zerga egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada (arrazoia edozein dela ere), eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen den bezala.

Horretarako, notarioek informazioa eskatuko dute eta egilesten dituzten agirietan ondokoak berri emango die berriaz bertaratuei: eskualdatzen den ondasun higiezinak zenbateko zorrak dituen Ondasun Higiezinak gaineko Zergaren kargaren ondorioz; interesa dutenek zer epealditan aurkeztu behar duten Zergaren aitortpena.

2. Zerga zorraren ordaintzaren erantzule solidario izango dira, nor bere partearen arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. apartatuan xedatutako erakundeetako titularkideak eta partaideak, baldin eta higiezinak katastroan hala agertzen badira inskribatuta. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko zaie.

IX. Zergaren kudeaketa

23. artikulua

Udalerriko errola urtero egingo da zerga kudeatzeko. Bertan ondasun higiezin, subjektu pasiboen eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landa lurrenak eta hiri lurrenak bereizita.

Errola hori Dulantziko udaletxean egongo da jendaurrean.

24. artikulua

1. Subjektu pasiboek zerga honen kargapeko ondasunen alden eta aldaketen aitorenak aurkeztu behar dizkiote Dulantziko Udalari.

2. Hona hemen aurkeztu beharreko aitorenak:

- a) Eraikin berrien kasuan, behar diren alta aitorenak egin behar dituzte obra amaitzen denetik hilabete pasatu baino lehen, eta, behar izanez gero, eraikina dagoen lursailaren baja aitopena ere bai. Bestela, eraikinari ofizioz emango zaio alta.
- b) Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskuratzailleak alta aitopena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskualdatzailleak, berriz, baja aitopena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu: eskuratzaillearen izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokalekua, eskualdaketa data eta kontzeptua.
- c) Eskualdaketa "mortis causa" egintza batek eragiten badu, jaraunsleak aurkeztu behar ditu alta aitopena eta baja aitopena.
- d) Aitorenak Dulantziko Udalak prestatzen duen ereduari lotuta aurkeztu behar dira, eta berarekin batera agiri hauek:
 - Eskualdatzaillearen eta eskuratzaillearen NANak edo IFZk.
 - Aldaketa eragiten duen agiriaren kopia.
 - Eskualdatzen diren higiezin katastroko erreferentzien ziurtagiria.

25. artikulua

Higiezin katastroen berrikuspenen ondorioz, katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeko egiten diren eragiketen ondorioz, ikuskapen jardueren ondorioz eta altak eta berriemateak direla eta katastro horietan datuak sartzen dira edo dauden datuak kentzen edo aldatzen dira. Bada, horiek guztiak administrazio egintzak izango dira eta zergaren eroldaren aldaketa ekarriko dute.

Erroldan higiezin katastroetako datuekin lotutako aldaketarik egin behar izanez gero, alde zurretik aldaketa bera egin behar da katastroetan.

26. artikulua

1. Zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko aldia zein premiamendu bidean) ahalmenak Dulantziko Udalak dauzka. Honek ez du eragozten hurrengo 3. zenbakian xedatutakoa.

2. Hain zuzen ere, udalaren egitekoak dira altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea zerga honen inguruko gaiez.

3. Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzorua mugaketak eta balioztapen txostenak egitea eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatzea, berrikustea eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga erroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspena, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio. Udalak katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko dio Arabako Foru Aldundiari.

Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali behar dizkio ordenantza honen 6. eta 17. artikuluetan jasotako salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko ematen dituen ebazpenak.

4. Halaber, Arabako Foru Aldundiak prestatu behar ditu kobrantzako ordainagiriak. Udalak Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauko 15. Artikuluko 7. eta 9. idatz zatietan aipatzen diren hobari pertsonaletako bat ezartzen badu, ordainagiriak berak prestatu beharko ditu.

Zergaren katastroa ikuskatzea Arabako Foru Aldundiari dagokio.

27. artikulua

Balio txostenak onesteko egintzen eta katastro balioen kontra zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera aurkezten diren errekursoak eta erreklamazioak ebatziko dira zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229. artikulutik 246.era xedatutakoaren arabera, eta berraztertze errekursoak ebatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiarena izango da.

Horrelako errekurtoa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

28. artikulua

1. Errolda Arabako Foru Aldundiak egingo du, eta ondoren Dulantziko Udalari bidaliko dio.
2. Errolda jasotakoan Dulantziko Udalak jendaurrean jarriko du 15 egunez, zergadunek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.
3. Egun bi lehenago, gutxienez, Dulantziko Udalak Egiletako Administrazio Batzarreko lehendakariari jakinaraziko dio noiz jarriko den errolda jendaurrean, herritarrei horren berri eman diezaien ohiko bideak erabili.

29. artikulua

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, foru aldundiari emaitzaren egiaztatzea bidaliko zaio, onar dezan.
2. Ziurtagiria onartu eta gero Arabako Foru Aldundiak bidezko ordainagiriak prestatuko ditu, eta gero Udalari bidaliko dizkio, zerga bilketari ekin diezaion.

X. Ordainketa

30. artikulua

Ondasun higiezinaren gaineko zerga borondatez ordaintzeko aldia bi zatitan banatuko da, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da.

- 1. epea: ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean ordaindu behar da.
- 2. epea: urriaren 15etik azaroaren 15era bitartean ordaindu behar da.

Zergaren kobrantzaren berri emango da iragarki oholean.

Lehenengo xedapen gehigarria

6 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta Espainiako Estatuak eta Vatikanoko 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, ondasun hauek salbuesita egongo dira:

- a) Kultureku modura erabiltzen diren tenpluak eta kaperak, eta haien bulegoak eta jarduera pastoralerako erabiltzen diren eraikin erantsiak ere bai.
- b) Gotzainen, kalonjeen eta jardunean dauden apaizen egoitzak.
- c) Bulegoak, Elizbarrutiko Kuriaren lokalak eta parrokiako bulegoak.
- d) Elizbarrutiko kleroaren eta erlijiosoen prestakuntzarako apaiztegiak eta Elizaren unibertsitateak, eliz arloetako gaiak irakasten dituzten heinean.
- e) Nagusiki erlijiosoen ordenen eta kongregazioen edo bizitza kontsokratuko erakundeen etxe edo komentu moduan erabiltzen diren eraikinak.

Hori guztia bat dator Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioak 1985eko irailaren 24an emandako Aginduak ezarritakoarekin (BOE, 236. zk., urriaren 2koa).

Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik, salbuespena edo hobaria aplikatzeko eskaerak izapidetzean biltzen diren datu pertsonalak Dulantziko Udalaren 3. fitxategian gordeko dira (Dulantziko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzeari eta aldatzeari buruzko araua).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Dulantziko Udalera jo behar da. Halaber, salbuespena edo hobaria eskatzen duten pertsonak baimena emango diote Dulantziko Udalari aurkeztutako agiriari datuak egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.

Lehenengo xedapen iragankorra

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen 42/1989 Foru Arauak xedapen gehigarrietan ezarritako arauak udalerrri honetan aplikatuko dira, haiek eragiten dioten heinean.

Bigarren xedapen iragankorra

Toki Ogasunak aldatzeari buruzko martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jartzean, hobari batzuk onartu ziren ondasun higiezinaren gaineko zergan, eta bertan dago jasota zein kasutan goza daitezkeen. Hobari horiek indarrean segituko dute, eta erregu izaera badute, ez da beharrezkoa izango eskatzea.

Aldiz, zerga ordenantza honetan ezarritakoaren arabera aplikatu ezin diren zerga horren onurak ezarrita duten iraungipen egunera arte soilik egongo dira indarrean.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau adierazita dagoen den egunean onartu zen, eta indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean; bestalde, hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 19.1.c) artikuluan eta uztailearen 19ko 44/89 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz, Dulantziko Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eskatuko du ordenantza honen arabera.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Hauxe da zerga egitatea: Bide publikoan ibiltzeko erabil daitezkeen trakzio mekanikoko ibilgailu baten titulartasuna edukitzea, ibilgailuaren mota eta kategoria gorabehera, zirkulazio baimenean ageri den egoitza udalerrri honetan badago.

2. Behar den erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailuak zirkulaziorako egokitzat joko dira bajarik eman ezean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko egokitzat joko dira.

3. Ez daude zergaren pean:

- Modelo zaharrekoak direla eta erregistroetan baja eman ondoren, aparteko kasuetan (erakustaldiak, lehiaketak edo lasterketak) zirkulatzeko baimen berezia jasotzen dutenak.
- Trakzio mekanikodun atoiak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg-tik beherakoa dutenak.

III. Salbuespenak

4. artikulua

1. Salbuespen kasuak:

Hauek zergatik salbuetsita daude:

- Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta tokierakundearen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.
- Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrek badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.
Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundearen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.
- Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

- d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.
- e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A idatz zatiak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude. Gainera, salbuetsita daude ezinduen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, haiek bakarrik erabiltzeko badira. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduek eramateko ibilgailuen kasuan. Orobat, zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak. Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren. Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:
1. Ehuneko 33 - 65 bitarteko minusbaliotasun gradua onartuta dutela, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak. Honako hauek dute mugitzeko gaitasuna murriztuta: Minusbaliotasun gradua onartu, adierazi eta kalifikatzeko prozeduraren abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak III. eranskineko baremoko A, B eta C letretan azaltzen diren egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.
 2. Ehuneko 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak. Aurreko a) eta b) letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalen muga, baldin eta ibilgailua gorpil aulkiekin erabiltzeko egokিতa badago".
- f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzita plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.
- g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

2. Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Artikulu honetako 1. apartatuko e) eta g) letretan azaltzen diren salbuespenak aplikatu nahi dituztenek eskaera aurkeztu behar dute, eta harekin batera honako agiri hauek:

a) e) letrako salbuespena:

Ezindu baten izenean matrikulatutako ibilgailua, berak bakarrik erabiltzen duena:

- Zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Arabako Foru Aldundiak edo organo eskudunak emandako ezintasunaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Ez da nahikoa izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.
- Gidabaimenaren fotokopia (aurreko aldea eta atzekoa).
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren fotokopia konpultsatua.
- Eskatzailearen zinpeko aitortpena, ibilgailu salbuetsirik ez daukala dioena.

Ezinduek eramateko ibilgailua:

- Aurreko puntuan eskatutakoak.
- Ibilgailuaren xedearren frogagiria, Udalari aurkeztua; honako hauek behar dira:
 - Interesdunaren adierazpena.
 - Enpresaren ziurtagiriak.
 - Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eramateko ibilgailuek eduki ohi duten aparkatzeko txartela.
 - Agintaritzaren edo pertsona eskudunak emandako beste egiaztagiri batzuk.
- Guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dagoen kasuetan, horren ziurtagiria.

b) g) letrako salbuespena:

- Zirkulazio baimenaren fotokopia konpultsatua.
 - Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia konpultsatua.
 - Ibilgailuaren titularraren izenean egindako Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartelaren fotokopia konpultsatua.
- Salbuespen hau ezin aplikatu izango da udal administrazioak egiaztatzen duenean nekazaritzarako traktorea, atoiak edo erdiatoiak nekazaritzakoak ez diren produktuak edo salgaiak garraiatzeko erabiltzen dela, edo ez dela beharrezkoa nekazaritzako ustiapenerako.

3. Salbuespen eskaeraren ebazpena:

Salbuespena onartutakoan Dulantziko Udalak horren egiaztagiria emango du. Salbuespena ez bada eskatzen ibilgailuaren altarekin batera, eman eta urtebetera jarriko da indarrean.

IV. Subjektu pasiboa

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean duten pertsona fisiko edo juridikoak eta zergei buruzko foru arau orokorraren 35. artikulua 3. Idatz zatiak aipatzen dituen erakundeak.

V. Zerga kuota

6. artikulua

1. Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da:

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA
A) Autoak	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	22,46
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	61,39
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	127,97
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	159,12
20 zaldi fiskaletik aurrera	214,54
B) Autobusak	
21 eserleku baino gutxiago	148,17
21 eta 50 eserleku bitartean	215,47
50 eserleku baino gehiago	263,71
C) Kamioiak	
Zama erabilgarria: 1.000 kilogramo baino gutxiago	75,25
Zama erabilgarria: 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	148,17
Zama erabilgarria: 2.999 kilogramo baino gehiago eta 9.999 kilogramo bitartean	202,96
Zama erabilgarria: 9.999 kilogramo baino gehiago	253,72
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	31,08
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	49,39
25 zaldi fiskal baino gehiago	148,17
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak	
Zama erabilgarria: 750 eta kilogramo bitartean	31,42
Zama erabilgarria: 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	49,39
Zama erabilgarria: 2.999 kilogramo baino gehiago	148,17
F) Beste ibilgailu batzuk	
Ziklomotorrak:	8,82
125 cm3 edo gutxiagoko motozikletak	8,72
125 cm3 baino gehiagoko eta 250 cm3 bitarteko motozikletak	13,52
250 cm3 baino gehiagoko eta 500 cm3 bitarteko motozikletak	26,93
500 cm3 baino gehiagoko eta 1.000 cm3 bitarteko motozikletak	53,85
1.000 cm3 baino gehiagoko motozikletak	107,77

2. Ibilgailua zer motatakoa den zehazteko arau bidez ezartzen dena aplikatuko da, bai eta erregela hauek ere:

- a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:
 1. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusei dagokien zerga ezarriko zaio.
 2. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagokion zerga ezarriko zaio.
- b) Zerga honen ondorioetarako motogurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, zilindradaren araberako karga jasango dute.
- c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arraste indarra duen ibilgailuak bere karga jasango du eta atoiak edo erdiatoiak berea,aldi berean.
- d) Edukiera dela eta matrikulatu behar ez diren ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzeko erabilgarritzat joko dira Industria Ordezkaritzak bidezko ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatzeko hasten denetik, kasuan kasukoa.
- e) Bide publikoetatik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropulsatuek traktoreei dagozkien tarifaren arabera karga jasango dute.
- f) Traktokamioiak eta obra eta zerbitzuetako traktoreak artikulatu honetako 1. idatz zatiko D tarifan (traktoreak) sartuta daude.
- g) Lur orotako ibilgailuak turismotzat hartuko dira eta potentzia fiskalaren arabera karga jasango dute.
- h) Ibilgailu misto moldagarrien gaineko karga baimendutako plazen arabera izango da:
 1. Eserlekuen kopurua (gidariarena zenbatu gabe) ibilgailuaren kategoriaren edo egituraren arabera gehienez egon daitezkeen erdiak baino gehiago ez badira, kamioiek bezala ordainduko dute zerga, zama erabilgarriaren arabera.
 2. Eserlekuak (gidariarena zenbatu gabe) ibilgailuak bere kategoriaren edo egituraren arabera gehienez eduki ditzakeen erdiak baino gehiago ez badira, kamioiei dagokien karga aplikatuko zaio zama erabilgarriaren arabera.
- i) Autokarabanak eta bizitzeko atondutako ibilgailuak turismotzat joko dira, eta potentzia fiskalaren arabera karga jasango dute. Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, Ibilgailuen Araudi Orokorra onetsi duen abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuko 11.20 artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da, testu beraren V. eranskina kontuan hartuta.

VI. Hobariak

7. artikulua

1. Irizpide orokorrak:

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Zerga honen hobariaren onuradun izan ahal izateko, eskatzaileak egunean izan behar ditu Udalarekiko zerga betebeharrak".

Hobariak urtero eskatu behar dira, hainbat zergalditan berez berritzeko aukerarekin onartzen direnak ez beste guztiak. Eskatzaileei nahitaez aurkeztu beharreko eskaera eredia emango zaie; ereduarekin batera eskatzaile bakoitzak bere kasuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

Zerga ordenantzak behin betiko onartu ondoren ebatziko dira hobari eskaerak.

2. Definizioak:

Artikulu honetan ezarritako hobariak aplikatzeko definizio hauek hartuko dira aintzat:

- a) Errenta: familia unitatean jasotzen diren diru sarrera guztien batura da, pertsona fisikoaren gaineko zergari lotuta ez daudenak barne direla. Horretarako, idatz zati honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urtearen aurreko urtearen aurrekoan lortutako errentak hartuko dira aintzat. Aurreko idatz zatian aipatutako errenta zehazteko honako hauek hartuko dira aintzat: pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren datuak eta urtean familia unitateak izan dituen bestelako sarrerak, zergaren kargapean ez daudenak.

Errenta aitortzen aurkezten ez duten pertsonak, aurkeztu beharrik ez dutelako, honako agiri hauen bidez frogatu beharko dituzte beren sarrerak: 10T agiria, pentsioen edo laguntzen ziurtagiria eta sarrerak frogatzen dituzten beste edozein bitarteko. Familia unitatean umerik badago eta gurasoak legez bananduta badaude, edo dibortziatuta, edo bien artean ez badago ezkontza loturarik, umez (eta konpentsazio pentsioaz, behar den kasuetan) hitzartutako akordioaren kopia aurkeztu behar da. Betebeharrak ezartzen zaizkion gurasoak haietako bat betetzen ez badu, betetzeko agintzen duen epailearen ebazpena edo izapidetzeko eskatzen duen salaketa aurkeztu behar da.

- b) Familia unitatea zera da: urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 100. artikuluan zehaztutakoa.
- c) Familia unitateko kide guztiek lortzen duten errenta hartuko da kontuan.

3. Hobarien bateragarritasuna:

Jarraian azalduko diren hobariak bateraezinak dira.

4. Eskaera aurkezteko epealdia eta hobariaren aldia:

Berariaz ezarrita ez dagoen kasuetan eskaera aurkezteko epealdia hobaria aplikatu nahi den urteko urtarrilaren 31ra artekoa izango da. Familia ugarien hobaria (5.2 artikulua) urtebete egongo da indarrean. Gainerakoek ez dute mugaegunik edukiko.

5. Hobari kasuak:

Hauei aplikatu ahal zaie hobaria:

5.1. Ibilgailu historikoak:

- a) Hobariaren ehunekoa, baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Ibilgailu historikoei ehuneko 70eko hobaria aplikatu ahal izango zaie baldintza hauek betez gero: ibilgailuak 25 urte eduki behar ditu gutxienez, Ibilgailu Historikoen Araudia onetsi duen uztailearen 14ko 1247/1995 Errege Dekretuak ezarritako betekizunak bete behar ditu, eta titularrak Dulantzin errolatuta egon behar da.

Titularrak ibilgailua historikoa dela egiaztatzen duen zirkulazio baimena aurkeztu behar du.

5.2. Familia ugariak:

- a) Onuradunen baldintzak eta hobariaren ehunekoa:

Familia ugarietako zerga kuotaaren ehuneko 25eko hobaria edukiko dute baldintza hauek betez gero:

- Ibilgailuaren titularrak bere kargu familia ugaria izateko baremoan ezarritako gutxieneko seme-alaba edo tutoretzapeko ume kopurua daukan gurasoa edo legezko tutorea izan behar da, eta horiek guztiak egoitza berean egon behar dira errolatuta.
- Turismoak bost plaza eduki behar ditu gutxienez, eta ezin ditu eduki 15,99 zaldi fiskal baino gehiago.
- Salbuespen hau ibilgailu bati soilik aplikatu dakiok.
- Familiako kide guztiak egon behar dira errolatuta Dulantzin.
- Familia unitatearen errenta ezin da izan taula honen arabera gehieneko zenbatekoa baino gehiago:

Familia ugariaren errenta, hobaria aplikatu ahal izateko	
Kideak Errenta	Gehienez
3	28.783,64 euro
4	30.724,13 euro
5	32.291,43 euro
6	33.547,76 euro
7	34.804,09 euro
8	36.047,98 euro
9	39.652,78 euro
10	43.618,05 euro
11	47.979,85 euro
12	52.777,85 euro

b) Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Familia ugariaren ziurtagiria.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoa.
- Familiaren errentaren frogagiriak (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga, kide guztienak; autolikidazioa aurkeztu beharrik ez badago, errenta zenbatekoa dela frogatzen duen edozein agiri).

5.3. Ibilgailu jasagarriak:

a) Hobariaren ehunekoa, baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

1. Ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan ziklomotorrek, trizikloek, kuadrizikloek eta motozikletek; turismoek, furgoneta arinek, 8 leku baino gehiagoko ibilgailuek eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek, DGTren ibilgailu erregistroan honela sailkatuek: bateriazko ibilgailu elektrikoa, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), ibilgailu elektriko hibrido entxufagarri 40 kilometroko autonomiadunak eta erregai pilako ibilgailuek.

2. Ehuneko 30eko hobaria izango dute ibilgailuen erregistroan honela sailkatzen diren turismo, furgoneta arin, 8 leku baino gehiagoko ibilgailu eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek: ibilgailu hibrido entxufagarri 40 km baino autonomia gutxiagoak, ibilgailu hibrido ez-entxufagarriak, gas naturalez bultzatutako ibilgailuak, gas naturalez (GNC eta GNL) edo petrolioa gas likidotuz (GLP) bultzatutako ibilgailuak.

Eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoa.
- Ibilgailuaren fabrika ziurtagiria, elektriko edo hibrido homologazioa eta katalizagailu egokiak dauzkalako ziurtagiria.

Hobari horretaz 3 urtean gozatu ahal izango da, ibilgailua matrikulatzen denetik aurrera.

VII. Zergaldia eta sortzapena

8. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen bada, zergaren kuota ibilgailuaren eskuratze egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuratze egunetik baja datara arteko aldiaren proportziozkoa, hala badagokio.

4. Ibilgailu bati baja ematen zaionean, Zergaren kuota urtarilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da. Ibilgailua lapurtuz gero, zergaren kuota aldi baterako bajetarako ezarri den bezala hainbanatuko da, dagokion erregistroan aldi baterako baja gertatzen denetik pasatutako aldia kontuan hartuta.

VIII. Kudeaketa

9. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitzari dagokion udalaren egitekoak dira zerga hau kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, bai eta zergaren kudeaketan ematen diren egintzak berrikustea ere.

10. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

11. artikulua

Udalak emandako ordainagiria zerga ordaindu den frogagiritzat hartuko da.

12. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabetean ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

13. artikulua

1. Trafiko Buruzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenenek Zerga ordaindu dutela frogatu behar dute alde zurretik.

2. Ibilgailuen titularrek ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean Trafiko Buruzagitzan, baldin Zergaren ondorioetarako sailkapena aldatu bada, edota ibilgailua eskualdatzen dutenean, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen dutenean edo ibilgailuari baja ematen diotenean, alde zurretik Trafiko Buruzagitzari frogatu beharko diote Zerga kobratzean aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela. Gainera, kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, alde zurretik Zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

14. artikulua

Ibilgailua lehenengoz matrikulatzen bada, edo ibilgailuan zerbait aldatzen bada eta ondorioz sailkapena aldatzen bada zergaren ondorioetarako, interesdunak agiri hauek aurkeztu beharko dizkio Dulantziko Udalari matrikulazio egunaren edo aldaketa egunaren ondoko 30 egun baliadunetan, zergaren matrikulan sartzeko:

- Zirkulazio baimena.
- Ezaugarri teknikoaren ziurtagiria.
- NAN edo IFK.

Lehenengo xedapen gehigarria. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik, salbuespena edo hobaria aplikatzeko eskaerak izapidetzean biltzen diren datu pertsonalak Dulantziko Udalaren 3. fitxategian gordeko dira (Dulantziko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzeari eta aldatzeari buruzko araua).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Dulantziko Udalera jo behar da.

Halaber, salbuespena edo hobaria eskatzen duten pertsonak baimena emango diote Dulantziko Udalari aurkeztutako agiriaren datuak egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.

Lehenengo xedapen iragankorra

Toki ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuespena egon dira zerga horri buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.d) artikulua testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau horrek finkatutako 2.1.d) artikulua testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau adierazita dagoen den egunean onartu zen, eta indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean; bestalde, hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Bat etorri Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuan eta 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuan (zerga horri buruzkoa) xedatutakoarekin, udal honek hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Zerga hau zuzeneko da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Hauxe da zerga egitatea: edozein tituluren bidez eskualdatzen diren hiri lurren balioa edo jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen den hiri lurren balioa gehitzea zergaldian zehar.

2. Xede horietarako, honako hauek izango dira hiri lurrak:

- Hirigintzako planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatuak direnak, eta horien balioak.
- Lur urbanizagarriak, edo lurralde antolamendurako eta hirigintzarako tresnen arabera urbanizatuko diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, betiere mugatutako sektore edo esparruetan badaude; eta mota horretako gainerako lurzoru guztiak, haien garapenerako zehaztapenak ezartzen dituen hirigintzako tresna onartzen den unetik aurrera.
- Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, zatikatzeko horrek lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek ez badakar lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ondasun higiezinaren gaineko zergarenak ez diren beste ondorioetarako.

3. Zergapean egongo dira, ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako, ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatutako ondasun higiezinetara bildutako lurrek dituzten balio gehikuntzak.

III. Zergaren pean ez daudenak

4. artikulua

1. Landa lurren balioaren gehikuntza ez dago zergapean; hau da, zerga honek ez dio ezarriko karxirik aurreko artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera hirikoak ez diren lurren balioaren gehikuntzari.

2. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, xedapen bera aplikatuko zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei.

Honako hauek ere ez daude zergaren kargapean: ezkontza baliogabetzea, banaketa edo dibortzioa gertatzekotan edo izatezko bikotea amaitzekotan epaiak betetzearen ondorioz ezkontideen artean eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideen artean gertatzen diren ondasun higiezinaren eskualdaketak, eta seme-alaben alde egiten direnak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondare araubide ekonomikoa gorabehera, hurrenez hurren.

3. Lurren eskualdaketak, egiaztatzen baldin bada ez dela egon balio gehikuntzarik lur horiek eskualdatu eta eskuratu diren egunetako balioen arteko aldeagatik. Horretarako, balio gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen nahi duen pertsonak edo erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, interesduntzat hartuko dira ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak.

Balio gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, kasu bakoitzean hurrengo balio hauetako handiena hartuko da kontuan: eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasotakoa edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Gainera, ondorio horietarako, ezin izango dira eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastu edo zergak zenbatu.

Lurzoria eta eraikuntza dituen higiezin bat eskualdatzen denean, ondorio hauetarako honako hau hartuko da lurzoruaren baliozat: zergaren sortzapen datan lurrares katastro balioa guztizko katastro balioarekiko ordezkatzeko duen proportzioa aplikatuz ateratzen den balioa. Gainera, proportzio hori eskualdatze balioari eta, hala badagokio, eskuratzeko balioari aplikatuko zaio eta bi hamartarrez adierazi beharko da. Proportzio hori bi hamartarrek adieraziko da.

Eskuraketa edo eskualdaketa irabazi asmorik gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetan ezarritako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, konparatzeko lehenago aipatutako bi baloreetatik lehena hartuko da kontuan, hau da, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. Kapituluaren araututako araubide berezia aplikagarria zaien eragiketen ondorio diren hiri lurren eskualdatzeen ondoriozko kasuak, aipatutako Foru Arauaren 111. artikuluan ezarritakoaren babesean ematen diren lurri dagozkienak izan ezik, baldin eta jarduera-adar batean integratuta ez badaude, haren hemezortzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

IV. Salbuespenak

5. artikulua

1. Ondoko egintzen ondorioz gertatzen diren balio gehikuntzak salbuetsita daude:

- a) Zortasun eskubideak eratzea eta eskualdatzea.
- b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 4.1 k) artikuluan jasotzen den salbuespena aplikagarria zaien ondasunen eskualdatzeak, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealean titularrek egiaztatzen badute ondasun higiezin horietan kontserbazio, hobekuntza edo birgaitze lanak egin eta ordaindu dituztela.

2. Balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsita daude, zerga hau ordaintzea honako pertsona edo erakunde hauei dagokienean:

- a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoak, Arabako Foru Aldundiak, Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako Zuzenbide Publikoko erakundeak.
- b) Udal hau edo bertan integratutako toki erakundeak, edo udala atxikitzen zaion toki erakundeak eta beraren administrazio erakunde autonomoak.
- c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.
- d) Gizarte Segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarreko legeriarekin bat etorritik eratutakoak.
- e) Administrazio kontzesio lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurri dagokienez.
- f) Gurutze Gorria eta lurralde historikoak xedatzen dituen antzeko beste erakundeak.
- g) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena onartuta duten pertsonak eta erakundeak.
- h) Zerga hori ordaintzeko legezko betebeharrak irabazteko xederik gabeko erakunde bati dagokion kasuak (35/2021 Foru Arauaren 4. artikulua), irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 18. artikuluen 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera. Irabazteko xederik gabeko erakunde batek kostu bidez eskualdatzen baditu lurra edo kostu bidez horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzen baditu, zerga horietatik salbuesteko baldintza da lur horiek betetzea ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespena aplikatzeko ezarrita dauden betekizunak. Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, irabazteko xederik gabeko erakundeek udalari jakinarazi beharko diote abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 16. artikuluen 1. apartatuan araututako aukera baliatuko dutela, eta aipatutako Foru Arauaren II. tituluan jasotako zerga araubide bereziari buruzko baldintzak bete beharko dituzte.

3. Salbuespenak organo eskudunak ebatziko ditu ordenantza honetan eskatutako betebeharren betearazpenari buruz Udalaren zerbitzu teknikoek edo juridikoek egindako txostena aztertu ondoren.

V. Subjektu pasiboak

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

- Irabazteko xedearekin lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatzen duten gozamen-
eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen duena edo dena
delako eskubide erreala eratzten nahiz eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisiko edo
juridikoa, dela Zergei buruzko Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako
erakundea.
- Kostu bidez lurra eskualdatu edo, jabaria mugaturik, ondasunak edukitzeko eskubide
erreala eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskualdatzen dituen edo eskubide
erreala eratzten nahiz eskualdatzen duena, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei
buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan aipatutako erakundea.

2. Aurreko idatz zatiko b) letran aipatzen diren kasuetan, zergaduna Espainian bizi ez den
pertsona fisiko bada, zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat joko da lurra eskuratzen dituen edo
eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei
buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan aipatutako erakundea.

3. Zordun hipotekarioaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitzaren hipoteka, epei edo
notarioaren betearazpenaren ondorioz ordainean eman beharreko eskualdaketatik kreditu entitate
baten alde edo mailegu edo kreditu hipotekarioak modu profesionalean emateko jardura aurrera
eramaten duen edozein entitate profesionalaren alde, zergaduna ordeztuko duen subjektu pasibotzat
hartuko da higiezin eskuratuko duen entitatea, eta ordezkotako horrek ezingo dio zergadunari exijitu
ordaindutako zerga betebeharren zenbatekoa.

Apartatu honen ondorioetarako, berdin tratatuko dira hipoteka zordunaren edo haren
bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematean, zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorren
bermerako abal-emaile izaerarekin egiten bada.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioak sor daitezkeen, beharrezkoa da zordun edo bermatzaile
eskualdatzaileak, abal-emaileak edo bere familia unitateko beste edozein kidek ez edukitzea zerga zor
osoa estali ahal izateko adinako beste ondasun edo eskubiderik, etxea besterentzea ekidin litekeen
unean. Eskakizun hau betetzen dela ulertuko da.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da pertsona
fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluan 8. apartatuan jasotakoa.

Familia unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari
buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, Eusko
Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz eraturako izateko bikoteak ezkontzaren izaera
bera izango du.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan, ordezkotako ezingo dio zergadunari eskatu ordaindutako
zerga betebeharraren zenbatekoa itzultzea.

VI. Zerga oinarria

7. artikulua. Zerga oinarria zehaztea

1. Zerga honen oinarria sortzapearen unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean
hiri lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hura zehazteko, artikuluko 2.
apartatuan xedatutakoa baztertu gabe, sortzapearen uneko lurraren balioa ordenantza honen 1.
eranskinean zehaztutako koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. Artikuluan
ezarritakoaren arabera kalkulatu.

2. Subjektu pasiboak eskatuta, eta zerga ordenantza honetako 4.3. artikuluan ezarritako
prozeduraren arabera, balio gehikuntzaren zenbatekoa aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera
zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio gehikuntza
horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

8. artikulua. Lursailen balioa

Lurrek sortzape unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

1. Lursailen eskualdaketatik, sortzapearen unean duten balioa ondasun higiezinaren gaineko
zergarako finkatutakoa izango da. Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren araubidean dauden
higiezinak lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio salmenta prezioari.

2. Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratzean eta eskualdatzean, 1. Eranskinean jasotako ehunekoak ezarriko zaizkio aurreko apartatuan zehaztutako balioaren zatiari. Zati hori aipatutako eskubideen balioaren adinekoa izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

- Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko ehuneko 2, ehuneko 70 gainditu gabe.
- Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70 dela zenbatetsiko da, gozamedunak 20 urte baino gutxiago dituzenean eta, adinak gora egin ahal, urte bakoitzeko ehuneko 1 gutxituko da, balio osoaren ehuneko 10eko mugarekin.
- Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamina 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza suntsiarazlearen menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da zerga ordainketarako.
- Aurretik eraturako gozamen eskubide baten eskualdaketan, aurreko erregelen arabera eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.
- Jabetza soilaren eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza soilak kalkulatu da aplikatuz lehenengo puntuko arauetatik balio gutxien ematen diona.
- Erabiltzeko eta bertan bizitzeko ondasunen gaineko eskubide errealen balioa kalkulatzeko, aldi baterako gozamenaren baloraziorako erregelak edo bizitza osorako gozamenaren baloraziorakoak, kasuan kasukoak, aplikatu ostean ondasunen balioari ehuneko 75 aplikatuko zaio.

3. Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko, edo lurzorua azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean -lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere- ordenantza honen I. eranskinean jasotako urteko koefizienteak 8. Artikuluaren 1. apartatuan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokionez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

4. Nahitaezko desjabetzeetan, ordenantza honen 1. eranskinean jasotako urteko ehunekoak luraren balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 8. artikuluaren 1. Apartatuan zehaztutako balioa txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio hori hartuko baita kontuan eta ez balio justuarena.

5. Katastro balioak balioztatze kolektiboko prozedura orokor baten eraginez aldatzen direnean, lur sailaren balioa edo aurreko idatz zatiko arauekin bat dagokion zatiarena honako hau izango da: dagozkion udalek katastro balio berriei kasu bakoitzean zehazten duten murrizketa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa. Katastro balio berriek eragite indarra duten lehenengo bost urteetako bakoitzerako aplikatuko da murrizketa hori.

Murrizketa gutxienez ehuneko 40 eta gehienez ehuneko 60 izango da; betiere, gutxieneko ehunekoak aplikatuko da udal honek ez badu ezartzen murrizketarik. Udal honek murrizketa-ehuneko desberdina ezarri ahal izango du murrizketa aplikatzen den bost urteetako bakoitzerako.

Apartatu honetan aurreikusitako murrizketa ez da aplikatuko bertan aipatutako balorazio kolektibotik ateratzen diren katastro balioak txikiagoak badira ordura arte indarrean egon direnak baino.

Katastro balio murriztua ezingo da inola ere izan balorazio kolektiboan egin aurretik lurra zuen katastro balioa baino txikiagoa.

9. artikulua. Balio gehikuntza sortzeko aldia

Balio gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da. Aplikazio eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak kontrako adierazi ezean, luraren ondorengo eskualdaketa batean agerian jarritako balio gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratzeko datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honen 4. artikuluko 3. Apartatuan xedatutakoa aplikatu behar zaie higiezinen geroko eskualdaketan, lurren balio gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko haiek eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte zatiak kontuan hartu gabe.

Sortze aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil zatiak kontuan hartu gabe.

10. artikulua. Koefizienteak

Sortzapenaren unean lurzoruak duen balioari aplikatu beharreko koefizienteak, balio gehikuntza sortu den aldiaren arabera, I. eranskinean jasotakoak izango dira.

VII. Zerga kuota

11. artikulua

Zergaren kuota osoa kalkulatzeko zerga oinarriari ehuneko 12,30ko karga tasa aplikatuko zaio.

Zergaren kuota likidoa kalkulatu behar izanez gero, kuota osoari 12. artikuluan aipatzen diren hoberiak aplikatuko zaizkio.

VIII. Hoberiak

12. artikulua

1. Irizpide orokorrak:

Artikulu honetako hoberiak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Zerga honen hoberiak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzailea egunean egotea Udalarekiko zerga betebeharretan.

Eskatzaileei nahitaez aurkeztu beharreko eskaera ereduia emango zaie; ereduarekin batera eskatzaile bakoitzak bere kasuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

2. Hoberi kasuak:

Hoberi hauek aplikatuko dira, heriotza dela-eta irabazpidez egiten badira, lurren eskualdaketetan eta jabaria mugatzeko gozamen eskubide erreala eskualdatzean edo eratzean:

1. Zerga kuotari ehuneko 95eko hoberia aplikatuko zaio baldintza hauek betez gero: eskuratzailea eskualdatzailearen lehen graduko ondorengoa (edo adoptatua) izan behar da, edo lehen graduko aurrekoa, edo adoptatzailea, edo ezkontidea edo izatezko bikotekidea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eraturako izatezko bikotea), beraren sarrera gordinak ezin dira 23.000 euro baino gehiago izan, eta eskuratutako ondasuna jaraunlearen ohiko etxebizitza izan behar da.

Hoberi hori aplikatzeko, diru-sarrerak baloratzeko, subjektu pasiboak sortzapena gertatzen den ekitaldiko urtarrilaren 1ean foru aldundiak likidatutako azken ekitaldiari dagokion errenta aitortzen aurkeztu beharko du, eta aitortpen hori egitea nahitaezkoa ez bada, ekitaldi horretan lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Etxebizitzaren jabari osoa, jabetza soila zein jabetza mugatzen duen gozamen-eskubide erreala eskuratu, subjektu pasiboak aurrekoaz gainera eskuratutako etxebizitza ohikoa izateko asmoaren adierazpena ere aurkeztu beharko du.

2. Zerga kuotari ehuneko 35eko hoberia aplikatuko zaio baldintza hauek betez gero: eskuratzailea eskualdatzailearen lehen graduko ondorengoa (edo adoptatua) izan behar da, edo lehen graduko aurrekoa, edo adoptatzailea, edo ezkontidea edo izatezko bikotekidea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eraturako izatezko bikotea).

IX. Zergaren sortzapena

13. artikulua

1. Zerga sortzen da:

- Eskualdaketa egunean, lurraren jabetza bizien artean edo norbaiten heriotzaren kausaz eskualdatzen bada, kostu bidez nahiz doan.
- Jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreal bat eratzen edo eskualdatzen denean: eraketa edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

Aurrekoaren ondorioetarako, hauxe izango da eskualdaketa eguna:

- Inter vivos egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiria pribatua bada, errola publiko batean sartzen edo inskribatzen den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela eta ematen zaion eguna.
- Heriotzak eragindako eskualdaketatik, eragilea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozatzeko eskubide erreala eratzea edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz balio gabetu, deuseztatu edo bukarazten badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekartzen ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera. Interesatuak Kode Zibilararen 1.295 artikuluan aipatutako itzulketak elkarri egin behar dizkiotela justifikatu ezean, irabazi asmorik badagoela uste izango da.

Egintzak edo kontratuak kostu ondoriorik izan ez arren, hutsalketa edo suntsiarazpena adierazten bada zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez dituelako bete, ez da inolako itzulketarik egin beharrik izango.

3. Kontratuaren bi parteek hala hitzarturik kontratua bertan behera geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta zergapeko egintza berritatzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4. Egintza edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira.

Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko baldintza bete arte.

Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko apartatuaren arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean.

5. Baldin eta gozamen ahalduetan edo testamentu ahalordeetan pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, ondorengotza zabalitzean sortuko dena, gozamenaren kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Baldin eta testamentu ahalordeetan edo gozamen ahalduetan gozamina azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamenaren kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

- Lehenengo likidazioa, heriotzaren unean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Dena den, testamentu ahalordeak edo gozamen ahalduak epe jakin bat balu gauzatzeko, lehenengo likidazioa aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak betez egingo da ahal hori egikartzeko ezarri den gehieneko epean.

- Beste likidazio bat, gozamen ahalduaren edo testamentu ahalordearen erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauarekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera.

Aurreko likidazioetatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamenari itzuliko zaio, haren aldekoa bada. b) letran zehaztutako likidazio hori jaraunspenearekin batera egingo da, jaraunspene horiek testamentu ahalordearengatik, gozamen ahalduarengatik edo horiek amaitzeagatik baldin badira jaraunspene.

6. Xedapen egintzen ondorioz, testamentu ahalordea edo gozamen ahalduaren erabiltzeko zain dauden jaraunspene dagozkien lurren eskualdaketei, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapenik, ordenantza honetako xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Zergaren subjektu pasibotzat joko da testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabili zain dagoen jaraunspena, eta zergaren sortzapena eskualdaketa-enean gertatuko da.

b) Zergaren zerga kuota zehazteko, likidazio bat egingo da kausatzaileak lursaila eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin, eskualdaketa-enean gertatuko dena, eta gozamenaren likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuko da, hori guztia aurreko 6. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Testamentu ahalordea noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak eskuratutako lursailen eskualdaketak egiten direnean, xedapen egintzen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, likidazio bat egingo da kausatzaileak lursaila eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin.

c) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hori azkentzeko arrazoiaren bat gertatzen denean, baldin eta eskualdatutako lurra testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua egikaritzeko zain dagoen herentziaren bidez eskuratu badira Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, likidazio bat egingo da kausatzaileak lursaila eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera, likidazio bakarria igorriko zaio gozamenari, biziarteko edo aldi baterako gozamenari buruzko arauari jarraituz, gozamenaren duen izaeraren arabera, testamentu ahalordea erabiltzeko zain dagoen herentziaren lurra eskuratu zuenetik igarotako denborarako.

Gozamena testamentu ahalordea erabiltzeagatik azkentzen den kasuetan, aldi baterako gozamenaren erregelen arabera likidazio bat igorriko zaio gozamenari, testamentu ahalordea erabiltzeko zain dagoen jaraunspenaz lursaila eskuratu zuenetik igarotako denborarako. Likidazioa eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzeagatik edo berau iraungitzeak gainerako kariengatik jaraunse diren likidazioa aldi berean egingo dira.

X. Kudeaketa

14. artikulua

Subjektu pasiboek aitortpena aurkeztu behar diote Dulantziko Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina, eta eredu horrek likidazioa egiteko behar diren zerga elementuak bilduko ditu. Aitortpen horretan zergari buruzko datuak eta beharrezkoak eta nahitaezkoak direnak ez ezik kuota ere adieraziko da, eta aitortpena egiten den unean bertan ordaindu beharko da.

Aitortpenarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Inter vivos eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortzen duen egintza edo kontratua formalizatzen duen dokumentu publiko edo pribatuaren kopia.

b) Mortis causa eskualdaketak: jaraunspena esleitzeko eskrituraren kopia edo, halakorik ezean:

- Banaketa koaderno pribatua, egonez gero.
- Azken nahien ziurtagiria.
- Testamentua edo, hala badagokio, abintestato jaraunsearen deklarazioa.

c) Eskualdatzekoak diren higiezinak eskuratzeko tituluaren kopia.

Bi eskualdaketa motetarako eta, gainera, doakoa bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren autolikidazio/aitortpenaren kopia.

2. Ordenantza honen 4. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa aplikatuta, ordaindu beharrik ez badago, berariaz jasoko da hori aitortpenean.

3. Subjektu pasiboak zerga oinarria ordenantza honetako 7. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztea erabakitzen badu, berariaz jasoko da aitortpenean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu Zerga Administrazioak zerga betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatezteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu zergapekoak formalki horren berri izanda.

4. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzearen zain dauden jaraunspenetan, horien administrazioarekin dagokio aurreko betebeharrak betetzea; hark aitortpena sinatu eta dagokion zerga zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzeko arduraren izango du, ordezkari gisa, administrazioarekin, testamentu ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenetan, edo gozamen ahalduak, gozamen ahaldua erabiltzearen zain daudenetan.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

15. artikulua

1. Aitorpena aurkezteko eta ondorio duen kuota ordaintzeko epe hauek hartu beharko dira kontuan, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita:

- Inter vivos egintzei buruzko aitopenak, 30 egun baliodun.
- Heriotzaren kausazko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetera ere luza daitekeena subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

2. Zergen arloko arau haustek Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera kalifikatzen eta zehatzen dira.

16. artikulua

Dulantziko Udalak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta interesatuak eskatuz gero luzagarria izango den hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkotzat jo ditzakeen agiri guztiak eskatzeko; epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek, dagozkien arau hauste eta zerga zehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiriak aitopena egiaztatzeko eta likidazioa ezartzeko beharrezkoak badira.

Adierazi diren agiri horiek interesdunak bere onurarako bakarrik alegaturiko inguruabarrak frogatzeko bitarteko hutsak baino ez badira, errekerimenduari ez erantzuteak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

17. artikulua

12. artikuluan xedatutakoa gorabehera, jarraian adieraziko direnek Dulantziko Udalari zerga gaiaren berri jakinarazi beharko diote subjektu pasiboek ezarritako epealdi beretan:

- Zerga ordenantza honetako 6. artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintza emaleak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duenak.
6. artikuluko b) letrako kasuetan, eskuratzailak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaionak.

18. artikulua

Halaber, notarioek, egutegiko hiru hileko guztien lehenengo hamabostaldietan, egutegiko aurreko hiruhilekoan egiletsiak dituzten agiri guztien zerrenda igorri behar diote Dulantziko Udalari. Zerrendan alderdi eskuhartzaileen izen-deiturak, nortasun agiri nazionalen zenbakiak eta helbideak eta zerga honen peko egitate, egintza edo negozio juridikoak jaso behar dira, hilturuko egintzak izan ezik.

Halaber, sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan.

Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragozten Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorra.

Notarioek udalari igorritako zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi behar dute, erreferentzia hori bat datorrenean eskualdatu nahi direnekin.

Notarioek, baimentzeko agiritan, berriaz ohartarazi beharko dizkiete bertaratuei interesdunek zergaren aitopena aurkezteko duten epea eta aitopenak ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunak.

19. artikulua

1. Dulantziko Udalak jakiten badu zerga gairen bat ez dela aitortu 12. artikuluan ezarritako epealdian, interesdunari eskatuko dio aitopena aurkezteko, eta gainera baliteke zergen arloko arau hausteari zehapena ezartzea, bidezkoa bada.

2. Dulantziko Udalak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunak aitopena aurkezten ez badu, ofiziozko espedientea bideratuko du eskueran dituen datuez baliatuta, eta bidezko likidazioa egingo da (behar izanez gero, ordaintzeko epealdiak eta errekurtsioak zehaztuko dira). Gainera, baliteke zergen arloko arau haustea gertatzea eta horri zehapena ezartzea.

I. eranskina. Kofizienteak

Kofiziente aplikagarriak, balio gehikuntza sortzen den aldien arabera, honako hauek izango dira:

Sortze aldia	Kofizientea
Urtebete baino gutxiago	0,14
Urtebete	0,13
2 urte	0,15
3 urte	0,16
4 urte	0,17
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,10
15 urte	0,12
16 urte	0,16
17 urte	0,20
18 urte	0,26
19 urte	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

Azken xedapena

Ordenantza honek ALHAOn behin betiko argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du aldatzen edo indargabetzen ez den bitartean.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 19.1.b) artikuluan eta zerga honi buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, Alegria-Dulantziko Udalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eskatuko du ordenantza honen arabera.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga zuzeneko zerga erreala da; enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsa kargatzen du ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Zerga gaia Alegria-Dulantziko udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea da, lokal jakin batean zein lokalik gabe, eta jarduera Zergaren tarifetan zehaztuta egon zein ez egon.

Zerga honen ondorioetarako hauexek hartuko dira enpresa jardueratza: abeltzaintza (lokabea izanez gero), meatzaritza, industria jarduerak, merkataritza eta zerbitzu jarduerak. Beraz, nekazaritzako jarduerak, beste jarduera bati lotutako abeltzaintza, basogintza eta arrantza ez dira enpresa jardueratza hartuko; horietan aritzea ez da zerga gaia.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, abeltzaintza lokabea izango da kasu hauetan:

- Abeltzainak abereak larratzen diren lurrak ez erabiltzea nekazaritzarako ez basogintzarako.
- Ukuiua landa finkatik kanpo egotea.
- Abereak transhumantzia ibiltzea.
- Abereak hazten diren finkakoak ez diren pentsuez elikatzea batez ere.

4. artikulua

1.- Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoarekin.

2.- Zergapeko jarduerak Arabako Foru Aldundiak onartutako Zergaren tarifetan zehaztuko dira.

5. artikulua

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko, Zuzenbidean onar daitekeen edozein bitarteko erabiliko da eta, bereziki, Merkataritzako Kodeko 3. artikuluan ezarritakoak.

6. artikulua

Jarduera hauek ez daude zergapean:

1.- Enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek aldatu baino bi urte lehenagotik, gutxienez, ibilgetu izaeraz agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek denboraldi berean erabili izan baditu.

2.- Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.

3.- Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren artikulua erakustea. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.

4.- Txikizkako salmentan, egintza bakarra gauzatzea eta eragiketa bakana izatea.

III. Salbuespenak

7. artikulua

1.- Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak.

Ondore horietarako, jarduera bat ez da hasitzat hartuko ondoko kasu hauetan:

- Jarduera lehen beste titulartasun batekin egin bada; halakotzat hartuko dira batzordeak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.
- Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikulua erkin bat etorri eraturako sozietate talde bateko kidea bada; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezin enpresak egin ez duena.
- Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

c) Eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena duten subjektu pasiboak. Ez- egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 2.000.000 eurotik beherako bolumena badute. Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez edukitzea ehuneko 25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enprese. Salbuespena: Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatzen diren arrisku kapitaleko funts edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak, baldin eta partaidetza sozietate horien xedearn betekizunaren ondoriozkoa bada.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1.- Eragiketen bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

2.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko edo Sozietateen gaineko Zergen subjektu pasiboentzat edo Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunentzat, eragiketen bolumena izango da zerga horiengatik aitorpenak aurkezteko epealdia Zerga sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arauko Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da.

3.- Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduerak ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan. Erakundea, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraituz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko erakunde guztienak izango dira.

- 4.- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokkeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.
- d) Gizarte Segurantzza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorri eratutakoak.
- e) Ikerketa erakunde publikoak, Estatuaren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundeen funtsen kargura ordaintzen diren irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), edo ongintzazko edo erabilera publikoko fundazioak; era berean, irabazteko xederik ez duten irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), hezkuntza itunaren araubidean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahaiko artikulak eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespen gisa, zentroan bertan saldu irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko bada, edo zentroa mantentzeko.
- f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsozialen elkarte eta fundazioak, irabazteko xederik gabek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko gauzatzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabek) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.
- g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.
- h) Nazioarteko ituna edo hitzarmen dela bide salbuespena aplika dakiekeen subjektu pasiboak.
- i) Irabazteko xederik gabeko erakundeak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauan ezarritakoari lotuta eta bertako baldintzak betez gero. Hala ere, erakunde horiek Zergaren matrikularen altaren aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, jarduera egiteari uzten badiote, bajaren aitortpena ere bai. Salbuespen hau aplikatzeko bi gauza gertatu behar dira: batetik, irabazteko xederik gabeko erakundeak Udalarari jakinarazi behar dio uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauko 16. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako hautapenari heldu diola; bestetik, foru arau horretako II. tituluan zerga araubide bereziaren inguruan ezarritako baldintzak eta inguruabarrak bete behar dira.

2.- Aurreko paragrafoko a), d), g) eta h) letretan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute aurkeztu behar Zergaren matrikulako alta aitortpena.

3.- Arabako Foru Aldundiak zehaztuko du aurreko 1. paragrafoko c) idatz zatian zehaztutako salbuespena zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio bat; komunikazio horretan, idatz zati horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak finkatuko du nolako izan behar den komunikazioa eta noiz eta nola egin behar den, bai eta zer kasutan aurkeztu behar den baliabide telematikoen bitartez ere. Aurreko 1. idatz zatiko c) letretan zehaztutako salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, zerga ordenantza honetako 13. artikuluko 2. idatz zatiko laugarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da.

4.- Artikulu honetako 1. idatz zatiko b), e) eta f) letretan arautzen diren onurak Udalak emango ditu bidezkoa denean, subjektu pasiboaren berriazko eskaera izapidetu ondoren. Eskaerarekin batera anura aplikatzeko kontuan eduki beharreko frogak aurkeztu behar dira. e) eta f) letretako onurak indarrean egongo dira emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatu arte.

IV. Subjektu pasiboa

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira Alegria-Dulantziko udalerrian zerga gai den jardueraren bat egiten duten pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakundeak.

V. Zerga kuota

9. artikulua

Zerga kuota kalkulatzeko ondoko hauek aplikatu behar dira: Zergaren tarifak, bidezko foru arauaren eta bera osatzen eta garatzen duten xedapenen bidez onartuak; 10. artikuluan ezarritako koefiziente bakarra; ordenantza honetan ezartzen eta arautzen diren hobariak.

10. artikulua

1.- Zergaren tarifiaren finkatutako udal kuota handituko dira eragiketen bolumenaren arabera haztapen koefizientea aplikatuz, ondorengo koadroan jasotakoarekin bat etorritz:

Haztapen koefizientea	
Eragiketa-bolumena (eurotan)	Koefizientea
1.000.000,00 - 2.000.000,00 euro bitartean	1,00
2.000.000,01 - 6.000.000,00 euro bitartean	1,20
6.000.000,01 - 10.000.000,00 euro bitartean	1,22
10.000.000,01 - 50.000.000,00 euro bitartean	1,24
50.000.000,01 - 100.000.000,00 euro bitartean	1,27
> 100.000.000,00 euro	1,30
Eragiketa-bolumenik gabe	1,25

Idatz zati honetan jasotako koefizientea aplikatzearen ondorioetarako, subjektu pasiboaren eragiketa bolumena berak burutzen dituen ekonomia jardueren multzoari dagokiona izango da, ordenantza honek 7.1.c) artikuluan jasotakoarekin bat zehaztuko da.

2.- Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauko 9,2 artikuluaarekin bat etorritz, udalerrian egindako jarduera guztien gutxieneko kuotei, Zergaren tarifiaren arabera finkatutako, Alegría-Dulantzikoko Udalak 1,544ko gehikuntza koefizientea aplikatuko die.

3.- Kuota kalkulatzeko, udalerriko bide publiko guztiak zerga kategoria berekoak dira.

VI. Hobariak

11. artikulua

1. Hobari kasuak:

1.1. Eskatuz gero, babestutako kooperatibei zerga honen kuota ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie Arabako Foru Aldundiak kalifikazio horren aldeko txostena eman ondoko hiru zergaldietan.

1.2. Zerga honegatik udal kuota ordaintzen duten subjektu pasibo batek aurreko zergaldian mugagabeko lan kontratadun enplegatuen batez bestekoa kopurua ehuneko 10 gehitu bada, aurreko zergaldiarekin erkatuta, ehuneko 15eko hobaria aplikatu ahal izango du.

Aurreko paragrafoan aipatutako batez besteko igoera ehuneko 20koa edo hortik gorakoa bada, enplegua sortzeagatik hobaria ehuneko 25ekoa izango da.

1.3. Udal kuota batekin kargatzen den jarduera ekonomiko bati ekiten diotenen ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute jarduera egiten duten bigarren zergaldia amaitu ondoko lehen bost urteetan.

Jarduera ekonomikoa lehenago beste titulartasun batekin egin bada, ezin aplikatu izango da hobaria. Jarduera lehenago beste titulartasun batekin egintzat joko da kasu hauetan, besteak beste: bategitea, bereizketa eta jardueraren arlo gehikuntza.

Ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran zehaztutako salbuespena amaitzen denetik bost urte pasatutakoan hobaria aplikatzeko aldia amaituko da.

2. Hobarien bateragarritasuna:

Subjektu pasiboek hobari guztiak aplikatu ahal dituzte, bakoiz tzaren baldintzak betez gero.

3. Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Zerga honen hobariak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzailea egunean egotea Udalarekiko zerga betebeharretan.

Hobariak urtero eskatu behar dira; salbuespena: hainbat zergalditan berez berritzeko aukerarekin onartzen diren hobariak.

Eskatzaileei nahitaez aurkeztu beharreko eskaera eredu emango zaie; ereduarekin batera eskatzaile bakoitzak bere kasuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

Interesdunek ondoko agiri hauek aurkeztu behar dituzte hoberia eskatzeko:

1.1. Kooperatibak:

- Arabako Foru Aldundiak babestutako kooperatibaren kalifikazioaren alde egindako txostena.

1.2. Enplegua sortzeagatiko hoberia:

- Aurreko urtean eta aribideko ekitaldian egon diren langileen kopuruari buruzko zinpeko aitortpena.
- Bi urte horietako TC2 agirien fotokopiak.

1.3. Jarduerari ekiteagatiko hoberia:

- Jarduerari ekin zaion egunari buruzko zinpeko aitortpena.
- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren alta.
- Gizarte Segurantzako alta autonomo gisa.

VII. Zergaldia, sortzapena eta ordainketa

12. artikulua

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikulua honetako 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2.- Zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da, eta kuotak murriztezinak izango dira, alta aitortpenetan jarduera hasi den eguna urtearekin bat ez datorrenean izan ezik; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da eta alta ematen den egun berean sortuko da.

3.- Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia urtarilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da Zerga eta kuota urtarilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da. Hilen kopurua kalkulatzeko, baja aitortpena aurkezten den hila osorik zenbatuko da. Zerbaki honetan xedatutakoa ezin aplikatu izango da jarduera hasten den egunetik baja aitortpena aurkeztu arte hamabi hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31 izango da.

Alta eta baja urte natural berean gertatzen badira, diru sarrerak ez dira inolaz ere itzuliko.

4.- Ikuskizunak direnean, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

5.- Zerga irailaren 15etik azaroaren 15era bitartean bilduko da urtero.

VIII. Kudeaketa

13. artikulua

1.- Zerga beraren matrikularen bidez kudeatuko da. Arabako Foru Aldundiak urtero prestatuko du Alegria-Dulantziko udalerriko matrikula; bertan datu hauek bilduko dira: subjektu pasiboak, jarduera ekonomikoak, zerga kuotak, eta, behar den kasuetan, foru erreargua.

2.- Subjektu pasiboek euren alta aitortpen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta, ordenantza honetako 11.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, matrikulan sartzeko behar diren datu guztiak adierazi beharko dituzte arau ezartzen den epealdiaren barruan. Ondoren administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta gero hark bidezko diru kopurua sartu beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aidaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epealdietan eta zehazten den bezala. Hori dela eta, berriemateetan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran ezarritako salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari.

Era berean, eragiketen bolumenaren aldakuntzaren ondorio zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioa aldatzen bada, edo ordenantza honetako eranskinean zehaztutako haztapen koefizientearen aplikaziorako kontuan eduki beharreko tartea, subjektu pasiboak bolumen aldaketaren berri eman beharko du.

Arabako Foru Aldundiak ezarriko du zer kasutan eman beharko den horren berri, eta finkatuko du zer, noiz eta nola adierazi behar den, eta zer kasutan aurkeztu behar den baliabide telematikoen bitartez.

3.- Zerga ikuskapenaren ondorioz, zergak kudeatzeko jarduketan eraginez edo alden eta berriemateen ondorioz eroldetan datuak sartzeara edo dauden datuak kentzea edo aldatzea administrazio egintzak izango dira, eta Zergaren eroldaren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko daturen bat ukitzen badu, lehenbizi datu hori aldatu beharko da nahitaez.

4.- Zerga hau autolikidazio bidez eskatu ahal izango da; hala bada, arau bidez ezarriko da nola.

14. artikulua

1.- Zerga hau Alegria-Dulantziko udalerrian kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biiltzeko (borondatezko aldia zein premiamendu bidean) ahalmenak bertako udalak dauzka.

2.- Eskumenak direla eta, Udalak Zergaren matrikula jendaurrean jarri behar du, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzi behar ditu, Zerga kobratu behar du, salbuespenak eta hobariak aplikatu behar ditu, eta Zergaren inguruko laguntza eta informazioa eman behar dizkie zergadunei.

3.- Ondoko lanak Arabako Foru Aldundiaren ez besteren egitekoak dira: Zergaren matrikula prestatzea eta artatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea, zerga kuotak ezartzea, eta bidezko kobrantzako ordainagiriak egitea.

4.- Udalek Zergaren matrikula prestatzen eta artatzen lagundu behar diote Arabako Foru Aldundiari, eta jarduera ekonomikoak kalifikatzen eta zerga kuotak ezartzen ere bai.

5.- Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali behar dizkio salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko ematen dituen ebazpenak.

15. artikulua

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurtsioei eta erreklamazioei Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229 - 246 bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie. Berraztertze errekurtsioak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

16. artikulua

1.- Udalerriko matrikula Arabako Foru Aldundiak prestatuko du, eta ondoren Udalari bidaliko dio.

2.- Aldundiak prestatutako matrikula jasotakoan Udalak jendaurrean jarriko du hamabost egunez, zergadunek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko agerpenaldia amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren emaitzen ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan eta, beharrezkoa bada, ebazpena eman dezan.

4.- Ziurtagiria onartu eta gero Arabako Foru Aldundiak bidezko ordainagiriak prestatuko ditu, eta gero Udalari bidaliko dizkio, zerga bilketari ekin diezaion.

17. artikulua

1.- Zerga honen kargapeko jardueren alta eta baja aitortzen kasuan, Udalak eskatu ahal izango du Zerga alde zuretik ordaintzeko autolikidazioaren bidez.

2.- Zerga honen kargapeko jardueren alta aitortzen kasuan, Udalak eskatu ahal izango du aitortpenarekin batera lokalaren irekiera lizentzia ere aurkezteko.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau bertan ageri den egunean onartu da, 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Alegria-Dulantzin berariaz atondutako aparkalekuan aparkatu eta gaua ematea arautzen duen udal ordenantza.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honek bi xede dauzka: batetik, Dulantzin, Udalaren kirol instalazioen ondoan, autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatzeko berariaz atondutako eremua nola erabili behar den arautzea, bertako natura baliabideak eta guneak babesteko eta pertsonen segurtasuna eta aparkaleku publikoak herri bideen erabiltzaile guztien artean modu ekitatiboan txandakatzea eta banatzea bermatzeko; bestetik, kanpaldi librearen debekua, araudi autonomikoan ezarritakoa, betearaztea.

2. artikulua. Kanpaldi librearen debekua

Zehapena ezarriko zaie Dulantziko udalerrian autokarabanetarako gordetako aparkalekuan kanpaldi librearen debekua hausten dutenei. Ondorengo artikuluetan zehazten da zein den kanpaldi librearen eta autokarabana aparkatzearen arteko desberdintasuna.

3. artikulua. Kanpaldi librea

Hau da kanpaldi librea:

- Autokarabanatik kanpo aisialdirako gauza edo tresna bat jartzea, baita erraz garraiatzeko moduko elementuren bat, zimendurik ez daukana, erabiltzea ere.
- Autokarabana ordenantza honetan ezartzen dena baino luzeago egotea aparkalekuan.
- Dulantziko Udalaren langileen edo Ertzaintzaren iritzi Udalaren beste ordenantzetan ezartzen denarekin bat ez datozen jarduera guztiak.

4. artikulua. Aparkatzea eta kanpatzea: desberdintasunak

Autokarabana eta antzeko ibilgailuei baimena ematen zaie hiri barruko bideetan geratu eta aparkatzeko, baldin eta geratze edo aparkatze hori arriskutsua ez bada, legeak xedatutakoaren arabera egiten bada, zirkulaziorako eragozpen edo arriskurik sortzen ez badu eta geratu edo aparkatzeko baimendutako tokian adierazi bezala jartzen bada ibilgailua. Kontua azaldu eta argitzearren, honako kasu hauetan autokarabana ez dago kanpatuta, baizik eta aparkatuta:

- Zorua gurpilek edo segurtasun altxagarriek bakarrik ukitzen dute (hanka egonkortzaileak ez daude eraitsita, ez eta bestelako tramankulurik ere).
- Autokarabanak itxita dagoela okupatzen duen eremua baino ez da okupatzen; hau da, leihoak itxita daude (irekita edo kanpora zabaldua dauden leihoek ibilgailuaren perimetroaz harago dagoen eremua okupatzen dute) eta ez dago aulkirik, ez mahairik, ez olanarik hedatuta, besteak beste.
- Ez da isurtzen inolako fluidorik, ez kutsagarriak, ez bestelakorik; salbuespenak: motorraren errektuntzak sortu eta ihes hodiaren bitartez kanporatzen direnak; gizalegez jokatzeko denean edota jarduera osasungaitzen bat egiten denean (bide publikoan ura hustea, esaterako) sortzen direnak. Ez da zarata gogaikaririk egiten (adibidez, elektrizitate sorgailu bat martxan jartzea) eta ekipamendu akustikoen bolumen ez da handiegia herritarrek atsedean hartu ohi duten orduetan edo egunez aldi luzeetan.

5. artikulua. Aparkaldia

Ibilgailu horiek aparkatzeko gehieneko denbora astebetekoa izango da. Udalak, gainera, autokarabanak bide publikoko eremu mugatuetan aparkatzea mugatu edo debekatu ahal izango du, bide segurtasunari edo zirkulazio eta aparkaleku espazioari eragiten dioten etxebizitza ibilgailuen baimendutako gehieneko tamainak edo masak eragindako arrazoi objektiboengatik.

Tasa bat ezarriko da urak aldatzeko zerbitzuagatik.

6. artikulua. Zerbitzuguneak

Hauek dira Dulantziko autokarabaren zerbitzugunea erabiltzeko arauak:

1. Ibilgailuen sailkapena:

Ordenantza hau autokarabana eta etxebizitza ibilgailu homologatu hauei aplikatzen zaie:

- 2448 (etxebizitza furgonia).
 - 3148 (etxebizitza ibilgailu mistoa).
 - 3200 (autokarabana, zehaztu gabea, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tiko gorakoa ez duena).
 - 3248 (etxebizitza autokarabana, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tiko gorakoa ez duena).
 - 3300 (autokarabana, zehaztu gabea, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duena).
 - 3348 (etxebizitza autokarabana, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duena).
 - 4048 (etxebizitza atoi eta erdi atoi arina, 750 kg-ko edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua duena).
 - 4148 (750 kg-tik beherako etxebizitza atoi eta erdi atoa, 3.500 kg-ko edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua duena).
 - 4248 (3.500 kg-tik gorako etxebizitza atoi eta erdi atoa, 10.000 kg-ko edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua duena).
2. Erreserbatutako zonetan etxebizitza gisa katalogatutako ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal dira. Bestelako ibilgailuak, adibidez kamioiak, turismoak, eta abar, ez badira etxebizitza gisa homologatu eta ez badaukate komunik eta erabilitako urak biltzeko biltegiak, ezin dira aparkatu.
3. Aparkatutako ibilgailuek uneoro errespetatu behar dituzte zoruan aparkatzeko marraztu diren espazioen mugak. Ezin dute kanpora mahairik, aulkirik, olanarik, eguzkitakorik, estalkirik edo bestelakorik atera.
4. Egonaldiaren gehieneko aldia astebetekoa da, geldialdiaren unetik plaza utzi arte. Ezinbestekoetan edo beharizana dagoenean bakarrik, eta alkateak aldeztu aurretik baimentzen badu, gainditu ahal izango da egonaldiaren gehieneko iraupena.
5. Autokarabanek eta antzeko ibilgailuek sortzen dituzten ur gris eta beltzak husteko espazio bat edukiko dute erabiltzaileek. Gainera, tratatu gabeko uraren hargune bat edukiko dute. Zona honetan ezin da aparkatu. Erabiltzaileek erabiltzeko da, eta erabili ondoren garbitu egin beharko dute, eta berariaz debekatzen da edozein motatako ibilgailuak garbitzea.
6. Autokarabanak udalaren jabetzako zerbitzugune eta birziklatze guneetan sartu eta han eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa, bestalde, ordenantza honen tarifen eranskinean dago jasota.

Ur grisak eta beltzak husteko autokarabaren aparkalekuan sartzeari buruzko prezio publikoa 1,5 euro izango da, eta 30 minutu izango dira horretarako. Egiteko hori betetzeko denbora amaitutakoan, erabiltzaileak 1,5 euro ordaindu beharko ditu gehiegizko 30 minutuko.

Elektrizitatearen erabileraren prezio publikoa honako hau izango da: euro 1/ordu 1, 2 euro/2 ordu, 3 euro/3 ordu, 4 euro/4 ordu, 5 euro/5 ordu, 6 euro/24 ordu.

Eranskina

Tarifak:

3,00 euro/eguna.
1,5 euro/30 minutu urak husteko.

Elektrizitatearen tarifak:

Ordu 1: euro 1.
2 ordu: 2,00 euro.
3 ordu: 3,00 euro.
4 ordu: 4,00 euro.
5 ordu: 5,00 euro.
6 ordu: 6,00 euro.

7. Udalak edo Ertzaintzak zerbitzugunea zaindu eta jagoteko eta elkar errespetatzeko eta gizalegez jokatzeko ematen dituzten jarraibide guztiak beteko dituzte zerbitzuguneetako erabiltzaileek. Era berean, udalak edozein unetan erabil ditzake zerbitzuguneetako eremuak beste erabilera batzuetarako. Horrek ez du kalte ordainik sorraraziko zerbitzuguneen erabiltzaileentzat.
8. Debekatuta dago bide publikoan, eta bereziki autokarabanak aparkatzeko plazetan, kanpatzeko trasteak jartzea, hala nola mahaiak, aulkiak edo estalkiak, salbu eta berariaz baimentzen diren lekuetan.
9. Udalak udalerrian horrelako espazioak jartzea sustatu ahal izango du. Horrelakoak jabetza publiko nahiz pribatuak izan ahal dira. Edonola ere, erabilera publikokoak izango dira beti.
10. Udalaren instalazioen erabilera eta aprobetxamendu publikoa ahalik eta onenak izan daitezen, autokarabanen zerbitzugunearen erabiltzaile guztiek udalari jakinarazi beharko dizkiote gertatzen diren arazo tekniko, matxura, narriadura, gabezia edo erabilera desegoki guztiak.
11. Zerbitzugunearen barruan, kategoria guztietako ibilgailuen gehieneko abiadura 30 km/h izango da. Betiere, ibilgailuek ezin dute zaratarik egin bat-batean azeleratuz, eraldatutako ihes hodian bidez edo bestelako inguruabar ez-normalengatik. Gainera, ezin dituzte gainditu udal ordenantzek edo aplikatu beharreko legeriak finkatutako zaraten eta gas emisioen mugak, egotekotan.

7. artikulua. Ikuskatzea

Ordenantza honetako edozein artikuluren, edo ordenantza garatzeko Alkatetzak ematen dituen xedapenen, kontra egitea edo horiek ez betetzea arau haustea izango da; orduan toki korporazio honi egokituko zaio ikuskapen eta zehapen funtzio egokiak betetzea. Udaleko zerbitzu anitzetako langileak izango dira ordenantza hau betetzen dela zaindu behar duten pertsonak.

8. artikulua. Eskumena eta zehatzeko prozedura

1. Zehapen prozedura hasteko eta ebazteko eskumena duen organoa Dulantziko Udaleko alkatea, edo hark eskuordetzen duen pertsona, izango da.
2. Zehapen prozedura Zehatzeko Ahala Gauzatzeko Araudia onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera gauzatuko da.
3. Espedientearen ebazpena gehienez ere urtebeteko epean jakinarazi beharko da, prozedura hasten denetik aurrera zenbatuta, eta interesdunak planteatutako kontu guztiak eta prozeduratik eratorzen direnak erabakiko ditu.

Prozedura hasten denetik urtebeteko epean ez bada zehapen ebazpena jakinarazten, prozedura irauungi egingo da eta jarduketak artxibatuko dira, interesdunak eskatuta, edo bestela, ebazpena emateko eskumena daukan organoak egingo du, ofizioz, salbu eta prozedura eteteko arrazoia interesdunei egotzi behar bazaie edo epaile baten jardunaren ondorio bada.

9. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

1. Ordenantza arautzaile honen 3. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabanak aparkatzea arau hauste arina da, eta 90 euroko isunaz zehatzen da, baldin eta arau hauste horrek ez badakar bide publikoa oztopatzea.
2. Ordenantza arautzaile honen 4. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabanak aparkatzea arau hauste larria da, eta 300 euroko isunaz zehatzen da, baldin eta arau hauste horrek bide publikoa oztopatzea badakar.
3. Arau hauste larria izango da 5. artikuluan ezarritako debekua urratuz aparkatzea, eta 300,00 euroko isunaz zehatuko da.
4. Kanpatze librearen debekua urratzea arau hauste larria izango da eta 300 euroko isunaz zehatuko da. Isuna 450,00 eurorainokoa izan ahaliko da, jarduera hori eginez hiri altzariak narriatzen badira edo kanpatu den zona, axolagabekeriak, zikintzen bada; horrez gainera, egindako kalteak konpontzera behartuta egongo da kaltearen egilea. Isuna aipatutako neurrian handituko da, halaber, barbakoak edo antzekoak jartzen badira, ingurunea kaltetu edo arriskuan jartzen baitute.

10. artikulua. Kautelazko neurriak

Araua hautsi duen ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik kenduko da indarreko legedian ezarritako kasuetan. Arau hauste baten ondoren arau hausteak ez badu frogatzen espainiar lurraldean non daukan ohiko bizilekua, isunaren zenbatekoa behin-behinean finkatuko du salatzaileak. Zenbateko hori ez bada ordaintzen edo haren ordainketa ez bada bermatzen zuzenbideak onartzen duen moduetako edozeinetan, ibilgailua ibilgetuko da.

11. artikulua. Erantzukizuna

Dulantziko autokarabanen aparkatze gunea ez da zaindutako eremua. Beraz, Dulantziko Udalak ez du erantzukizunik hartuko aparkatutako autokarabanetan gorabeherarik, lapurretarik edo antzekorik gertatzen bada.

Lege honetan xedatutakoa urratzearen erantzukizuna arau haustea egiten duenarena izango da zuzenean.

Arau haustea egiten duen ibilgailuaren jabeak edo errentariak, behar bezala agintzen zaionean, arau haustearen erantzulea den gidaria modu sinesgarrian identifikatu beharko du. Betebehar hori betetzen ez badu, prozedura izapide egokian, 300,00 euroko isuna ezarriko zaio, arau hauste larri baten egile gisa.

12. artikulua autokarabanisten betebeharrak

Ordenantza honetan ezarritakoa bete beharraz gainera, autokarabanistek betebehar hauek izango dituzte:

- Mugimendu autokarabanistak estatuetako eta Europako elkarteen bidez finkatutako jokabide eta etika kodeak errespetatzea, eta natura eta ingurumena zaintzea, bide publikoaren gainerako erabiltzaileak errespetatzea eta, oro har, kontzejuko biztanle eta bisitari guztiak.
- Trafikoko eta bide segurtasuneko arauak betetz gidatzea, ahal den neurrian gainerako gidariei aurreratzeko eta maniobrak egitea erraztuz.
- Edozein motatako zarata gogaikarriak ez egitea, batez ere soinu aparatu, irradi, telebista, energia sorgailu edo etxeko animalienak, hiriko bide publikoan edo horretarako egokitutako zonetan aparkatuta egon bitartean.
- Hiri hondakin solidoak biltzeko ontzi egokiak eta hondakin urak biltzeko ekipamendu egokiak erabiltzea.
- Aparkatzeko espazio fisikoa okupatzea, beharrezkoak diren mugen barruan.
- Aparkatzerakoan eragozpen funtzionalik ez sortzea, motordun ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoaren segurtasuna arriskuan ez jartzea, monumentuen ikuspegia ez oztopatzea, eta eraikin publiko edo pribatuaren eta establezimendu komertzialen sarbideak ez oztopatzea.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/89 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalaren jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak ezarri eta eskatzen ditu:

- epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailetan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak, jolasak edo atrakzioak nahiz kaleko industriak instalatzea.
- Epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailetan zanga, hobi eta zuloak irekitzea, bai eta bide publikoan edo udal lurzatietan zoladura edo espaloiak mugiaraztea ere.
- epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailak merkantzia, eraikuntza material, obra hondakin, hesi, eustoin, astotxo, aldarnio eta antzeko instalazioekin okupatzea.
- epigrafea. Tokiko jabari publikoaren era berezian aprobetxatzea, interes orokorreko homidura zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen alde.
- epigrafea. Ibilgailuak espaloietatik finka barrura sartzea eta bide publikoan aparkaleku eskusiborako, ibilgailuen geltokirako eta edonolako salgaien zamaletarako erreserbatzea.
- epigrafea. Udal biltegiak, aparkalekuak eta gordailuak aprobetxatzea.
- epigrafea. Udal erabilera publikoko lursailak mahai, aulki, taula eta antzeko elementuekin okupatzea, irabazi asmoz.
- Epigrafea. Tribunak, eguzki oihalak, balkoiak, begiratokiak eta antzeko beste instalazio batzuk bide publikoaren gainetik edo fatxadako lerroaren gainetik.
- epigrafea. Bide publikoetan edo udalaren jabari publikoko lursailetan edo horien gainetik hegan jartzea argindar, ur, gas edo bestelako isurietarako hodi, galeria eta lineak, baita lineetarako zutoinak, klabeak, tximeleta azkoinak eta amarratze, banaketa edo erregistroko kutxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikoko gailuak eta antzeko bestelakoak ere.

X. epigrafea. Udal bide publikoetako lurzorua, lurgainaren edo lurpearen beste edozein erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi.

2. artikulua

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Tasen zerga gaia osatzen dute udalaren jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak, bai eta era berezian subjektu pasiboari aipamen, eragin edo onura egiten dieten udal eskumeneko jardura administratiboak egin edo zerbitzu publikoak emateko eragiketak ere, betiere Arabako lurralde historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egingo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz Dulantziko Udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiegatik, herritarrek zerbaitez hornitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.

III. Subjektu pasiboak

4. artikulua

1. Tasaren subjektu pasiboak eta, beraz, zergadunak dira Arabako lurralde historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta era berezian gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute udalaren jabari publikoa euren onerako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 20.2 artikuluan aurreikusitako kasuen arabera.

2. Ibilgailuak edo gurdia espaloietan zehar sartzeko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta ordaindu beharreko tasa eta halako sarbideak eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ordaindu beharreko tasa dela-eta, zergadunaren ordezkokoak izango dira ibilgailuak sartzeko diren finka eta lokalak jabeak; ordezkoko horiek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak, bidezko kasuetan.

3. Ibilgailu edo gurdientzako espaloietako sarrerak direla-eta erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak direnean, edo sarrerak eraikitze, mantentze, aldatze edo kentzeagatik ordaindu beharreko tasak direnean, ibilgailuen sarrera horietarako sarbidea duten finka eta lokalak jabeak ordaindu beharko dituzte. Hala dagokionean, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

4. Estatuak, erkidego autonomoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide zerbitzu publikoari atxikitako aprobetxamenduak eta herritarren segurtasunaren edo defentsaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

III. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

5. artikulua

Salbuespenak edo beste zerga onura batzuk emateko, Udal Ogasunean aplikatu beharreko xedapen orokorretan edo ordenantza honetako epigrafe desberdinetan ezartzen dena beteko da.

IV. Zerga oinarria

6. artikulua

Ordenantza honetan araututako tasak ulertzeko oinarriak izango dira instalatu beharreko elementuaren ezaugarriak eta motak, aprobetxamenduaren denbora, eta lizentziaren arabera baimentzen den okupazioaren azalera edo berez okupatutakoa. Halaber, aprobetxamendu horren ondoriozko erabilerak merkatuan izango lukeen balioa hartuko da erreferentziatzat.

V. Zerga kuota

7. artikulua

Zerga kuota honakoa litzateke:

- Tarifa bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.
- Horretarako zehaztutako kopuru finkoa.
- Bi prozedurak batera aplikatzearen ondoriozko kopurua.

8. artikulua

Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta udal jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak, baita hari dagokion zenbatekoa aldeztatik gordailutu ere.

Kalte konponezinak sortzen badira, pertsona interesdunak kalte ordaina eman beharko dio administrazioari, suntsitutako ondasunen egungo balioaren edo kaltetutakoaren narriadura zenbatekoaren balioidea den zenbatekoan.

Udal teknikariek proposatuko dute egungo balioaren zenbatekoa, suntsitutako gauzen balioaren edo kaltetutakoaren narriadura zenbatekoaren arabera, legedia aplikagarriari jarraiki.

Dulantziko Udalak ezingo ditu artikulua honetan aipatzen diren kalte-ordainak eta itzulketak barkatu, ez osorik, ez zati batez.

VI. Sortzapena eta zergaldia

9. artikulua

Zerga egitatearen izaeraren arabera, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan, horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldeztatik gordailutzeko eska daiteke; jarduera edo espedientea abiarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta jarduera ez da gauzatuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordaindu arte.

Tasaren izaera materiala dela-eta berau aldizka itzuli behar bada, eta hala ezartzen bada dagokion epigrafean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean itzuliko da eta zergaldia urte natural batekoa izango da. Salbuespen kasuak izango dira erabilera pribatiboaren hasiera edo lagapena, aprobetxamendu berezia edo zerbitzu edo jardueraren erabilera. Kasu horretan, zergaldia dagokion egoerara egokituko da eta kuota proportzionalki banatuko da, horri buruzko epigrafean ezartzen diren baldintzen arabera.

Subjektu pasiboari egotzi ezin dakizkion arrazoen ondorioz jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendurako eskubidea gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

VII. Likidazioa eta ordainketa

10. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak Dulantziko udal administrazioak egingo ditu, eta likidatutako kuota ordainarazpen bakoitzerako tarifetan dauden arauen arabera ordainduko da.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

VIII. Tasen kudeaketa

11. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen kudeaketa, likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta indarreko lege xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. artikulua

1. Gauza edo elementuak instalatzeko eta hasieran emandakoak aldatu, berritu, handitu edo murrizteko, udalaren baimena beharko da. Edonola ere, ordenantza honetan araututako tasak ordaintzean emango da udal baimena eta ordura arte ezingo da erabilera edo aprobetxamendua hasi.

2. Tasa ordaintzen ez bada, baimena automatikoki ezeztatuko da eta instalatutako elementu guztiak berehala kentzeko agindua emango da.

13. artikulua

Ordenantza honetan araututako tasak ez daude lotuta mota guztietako lizentzia eta baimenak emateko tasak arautzen dituen ordenantzaren arabera ordaindu behar direnekin.

14. artikulua

Dulantziko Udalak zehapen araubidea ezarri ahalko du aurretiatzko lizentziarik gabe egiten diren erabilera edo aprobetxamenduetarako.

Kasu guztietan, ezartzen diren zehapenak eta gertatzen diren erantzukizunak gorabehera, erabilera edo aprobetxamendua baimenduta egonez gero ordaindu beharko zen tasa ordaindu beharko da.

15. artikulua

Tarifetan ezarritakoaren arabera exijitu daitezkeen kopuruak eskatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira eta ezingo dira murriztu dagozkien epigrafeetan aipatutako denboraldien arabera.

Aprobetxamenduaren iraunaldia zehatz-mehatz ezarri ez den kasuetan, okupazioa baimendu ondoren epe hori luzatutzat joko da, harik eta baja aitortzea aurkeztu arte. Edonola ere, dagokion tarifen aipatutako epe naturaleko lehenengo egunetik aurrera egongo da indarrean; baja aurkezten ez bada, tasa ordaintzen jarraitu beharko da.

Aprobetxamenduaren denbora baimendutakoa baino altuagoa bada, eta ikuskapena egin ostean, zehazgizko denborari dagokion tasa eta horren zenbatekoari dagokion errekargua ordaindu beharko dira.

16. artikulua

Gauza edo elementuak kendu ostean, interesdunek erabilera edo aprobetxamenduaren baja aitortzen egokia aurkeztu beharko dute Dulantziko udaletxean, ordenantza honetako epigrafe bakoitzean ezartzen diren ondoreekin.

17. artikulua

Aprobetxamenduen edo erabileren titulartasuna aldatuz gero, horien emakidadunak Dulantziko Udalarari jakinaraziko die. Era berean, titular berriaren datu pertsonalak eta helbidea nahiz ordenantza honen ondoretarako beharrezkoak diren bestelako datuak aipatuko dira.

Jakinarazpen hori bidali ezean, emandako lizentzia indargabetu egingo da eta Dulantziko Udalarari baimen berria eskatu beharko zaio.

18. artikulua

Aprobetxamendu edo erabilera ematen den unean sortuko da ordenantza honetan araututako tasak ordaintzeko betebeharra, aprobetxamendu berrien kasuetan, gainerako kasuetan, berriz, tarifa bakoitzean adierazitako epeetako lehenengo egunean sortuko da.

Udal lizentziarik eduki ezean, erabilera edo aprobetxamendua hasten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, bidezko zehapena gorabehera.

19. artikulua

Tasa tarifa erantsietan agertzen diren epeetan ordainduko da.

20. artikulua

Interesdunak lizentzia erabiltzeari uko egiten badio, justifikatuta dauden eta berari egotzi ezin dakizkion arrazoien ondorioz, Dulantziko Udalak itzuli egin ahalko du ordaindutako tasa, betiere emandako aprobetxamenduak ez baditu beste aprobetxamendu batzuk eragotzi.

21. artikulua

Udalak, organo eskudunaren ebazpen baten bidez, ordenantza honetan jasotako tasen zenbatekoaren ehuneko 100era arteko hobaria eman ahal izango die subjektu pasiboak, baldin eta jabari publikoaren erabilera pribatiboen edo aprobetxamendu berezien inguruabarrak direla-eta erabilera publikokotzat jo ahal badira edo udalaren interesa eta gizarte interesa justifikatuak badaude.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. Epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailetan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak, jolasak edo atrakzioak nahiz kaleko industriak instalatzea

1. Aplikazio arauak.

1. Aprobetxamendu bereziko udal baimena edo lizentzia ematen denean sortzen da zerga ordaintzeko betebeharra, edo berari hasten denetik aurrera, baldin eta bidezko baimenik gabe egiten bada, dagozkion instalazioak jendeari irekita edo itxita egonda ere.

2. Lursailak okupatzeko baimena jaso duten pertsona edo erakundeak, edo, hala badagokio, aprobetxamendua egiten ari direnak egongo dira ordaintzera behartuta.

3. Postuak edo aprobetxamenduak baimenik gabe instalatzen badira edo baimendutakoa baino azalera gehiago okupatzen bada, iruzurtzat joko da arau-haustea eta baimen ezari edo gehiegizko azalera dagozkien tasen bikoitza ezarriko da isunean.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Postuak.

Baldintza agirietan edo, hala badagokio, egiten den enkantean beste tarifa batzuk ezartzen ez badira, honakoak izango dira postu hauei dagozkienak, emandako baimenaren arabera:

	Herriko jaietan	Herriko jaiak ez direnean
Txurro denda eta txokolategiak, eta ore frijituak saltokiak	55 euro	44 euro/aste
Pastelak, karameluak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, imitaziozko bitxiak, artisau lanak eta oparitarako bestelako gauzak (jostailuak, liburuak, eta abar) saltzeko etxolak	55 euro	3. tarifa
Jomugara tiro egiteko, eraztunak jaurtitzeko eta hainbat jolasetarako etxolak	75 euro	60 euro/aste
Zabuak, aparatu hegalarik, gurditxoak, zaldiko-maldikoak, bumperrak era, oro har, mugitzen diren aparatuak	140 euro	100 euro/aste
Autotxokeen pistak	380 euro	300 euro/aste
Zirkuak	380 euro	300 euro/aste

Alkatetzaren ebazpen bidez, ehuneko 90era arteko hobaria eman ahal izango da, azoketako salerosleekin sarrera prezioari buruzko akordioa lortu bada edo udalak zehaztutako egunetan prezioak murriztu badira.

Bigarren tarifa. Udalerriko merkatu eta merkatutxoak.

Asteroko azokako salmenta postuetarako:

	Urteko kuota	Hiruhileko kuota	Eguneko kuota
1 - 3 metro lineal	160 euro	42 euro	4 euro
3 metro linealetik gora	249 euro	60 euro	6 euro

Hirugarren tarifa. Laugarren tarifen sartuta ez dauden udal ekitaldietarako salmenta postuak.

Konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak saldu edo erakusteko postu bakoitzeko nahiz josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta objektu anitzak saldu edo erakusteko postu bakoitzeko, honako tarifa ordainduko da:

	Eguneko kuota
Metro lineal bakoitzeko, gutxienez 2 metro lineal izanik	4,50 euro

Laugarren tarifa. Sukaldaritza gastronomikoko postuak udal ekitaldietarako.

	Eguneko kuota
Mahaiko metro lineal bakoitzeko, gutxienez 3 metro lineal izanik	6,50 euro

II. Epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailetan zanga, hobi eta zuloak irekitzea, bai eta bide publikoan edo udal lurzatietan zoladura edo espaloiak mugiaraztea ere

1. Aplikazio arauak.

1. Tasa honen barruan sartzen dira udal erabilera publikoko lursailetan irekitako zanga, hobi eta zuloak, baita errepide, bide eta gainerako udal bide publikoak ere, hodiak, tutuak eta bestelako instalazioak instalatu eta konpontzeko, edota bide publikoan zoladura edo espaloiak mugiarazteko eragiketak.

2. Interesdunek tasa honi dagozkion obrak eta aprobetxamendua gauzatzeko udal administrazioaren aurretiazko eta beharrezko lizentzia eskuratzen dutenean sortzen da zerga ordaintzeko beharra, edo, baimen egokia eduki gabe egin badira, horiek egiten diren unetik aurrera.

3. Udal lizentziaren titularrek eta aprobetxamendua egin duten edo bide publikoaren okupazioaren onurak jaso dituzten erakunde edo pertsonak ordaindu beharko dute tasa. Tasa hori bateragarria da bide publikoaren lurpea okupatzearen ondoriozko aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen araua aplikatzean sor daitezkeen gainerako kuotekin.

4. Dagokion aprobetxamendua egiteko ireki, mugitu edo altxatu behar den tokiko Jabari publikoaren azalera izango da tasa ezartzeko oinarria.

5. Ordainketa egin behar duenak fidantza bat eratu behar du. Fidantza hori betelanak ezin hobeto egiteko, eta, hala badagokio, zoladura jartzeko erabiliko da, baita konpondu ezin diren kalte posibleak ordaintzeko ere. Indarreko araudia edo lizentziaren baldintzak betetzen ez direnean ezartzen diren isunak ordaintzeko erabili ahaliko da. Fidantza bueltatzeko, indarreko araudia, lizentziaren baldintzak eta zolduraren konponketa egokia zehatz-mehatz bete direla dioen aurretiazko txostena beharko da. Interesdunak aurrerapen nahikoarekin jakinarazi beharko dio Hirigintza Sailari, zuloak bete eta zoladura konpondu baino lehen, eta lanak amaitzen direnean.

6. Tasa honi dagozkion obrak eta aprobetxamendua egiteko interesa duten pertsona edo erakundeek lizentzia egokia emateko eskatu beharko diote aurretiaz udal administrazioari. Horretarako, obra edo aprobetxamenduaren izaera, iraunaldia eta beharrezko azalpenak jaso beharko dira, bai lizentzia eman daitekeen aztertzeko, bai ordainarazpena aplikatzeko.

7. Obra amaitu ondoren, interesdunak egoeraren berri eman beharko dio Udalari, udaleko zerbitzu teknikoek obren egikaritzari buruzko txostena egin dezaten, gordailutatuko fidantza berreskuratzeko urrats gisa.

8. Tasa hauek behin likidatuko dira aprobetxamendu bakoitzeko eta jakinarazi osteko hamabost egunen barruan ordaindu beharko dira.

9. Zoladurak konpondu edo berreraikitzeagatik praktikatzen diren likidazioen berri eman beharko zaie interesdunei eta jakinarazi osteko hamabost egunen barruan ordainduko dira.

10. Epigrafe honetan zehazten diren obrak bi hilabete baino gehiago etengo balira, arrazoi justifikaturik gabe, tarifa ezartzearen ondoriozko kopuruek ehuneko 50eko errekargua izango dute, hirugarren hilabetetik aurrera, eta, obrak amaitu ondoren aprobetxamendua jarraitzen badute, kopuru horiek ehuneko 100ean gehituko dira.

2. Tarifak.

Epigrafe honetan araututako irekierak ez dute inola ere 6 euro baino gutxiago ordainduko.

Lehenengo tarifa. Lubakiak, zangak eta zuloak egitea.

Gas, ur edo elektrizitatearen hartune berriak, klabe edo hodian lineak, ixteko giltzen instalazioa, erregistroak, matxuren konponketak eta abar egiteko zanga, hobi edo zuloak irekitzean: 2,50 euro metro linealeko eta asteko. Zanga edo zuloaren zabalera metro batetik gorakoa bada, lehen ezarritako kuotak aurretik esleitutakoaren bikoitza bihurtuko dira. Zanga irekitzean ibilgailuen trafikoa itxi behar bada, bai osorik, bai norabide bat edo bide edo gune garrantzitsu bat erabilgaitz utzita, aurreko tarifa ehuneko 50 igoko da.

Epigrafe honi dagozkion tarifak ehuneko 25 igoko dira, baldin eta irekierak udal bide publikoetako trazio mekanikozko ibilgailuen aparkalekuetan egiten badira.

Bigarren tarifa. Lur azpiko ganberak.

Gordailuak, transformadoreak, zerbitzuak, sarbide edo aireztapen putzuak edo antzekoak instalatzeko lur azpiko ganberak: metro kubikoko edo edukiera frakzio bakoitzeko eta hileko: 7 euro.

3. Fidantza.

Gordailatu behar den fidantza honakoa izango da:

Zoladura gogorreko guneetan	Baimenaren zenbatekoaren hirukoitza
Zoladura biguneko guneetan	Baimenaren zenbatekoaren bikoitza

Fidantza dirutan edo kreditu erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal solidario bidez eratu ahalko da. Premiaz tramitatu behar diren lizentzien kasuan, fidantza nahitaez eratu beharko da dirutan.

III. Epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailak merkantzia, eraikuntza material, obra hondakin, hesi, eustoin, astotxo, aldarnio eta antzeko instalazioekin okupatzea

1. Aplikazio arauak.

1. Tasa honen barruan sartzen dira merkantzia, eraikuntza material, obra hondakin, hesi, eustoin, astotxo, aldarnio eta antzeko instalazioekin okupatutako udal erabilera publikoko lursailak.

2. Interesdunek tasa honi dagozkion obrak eta aprobetxamendua gauzatzeko udal administrazioaren aurretiazko eta beharrezko lizentzia eskuratzen dutenean sortzen da zerga ordaintzeko beharra, edo, baimen egokia eduki gabe egin badira, horiek egiten diren unetik aurrera.

3. Udal lizentziaren titularrek eta aprobetxamendua egin duten edo bide publikoaren okupazioaren onurak jaso dituzten erakunde edo pertsonak ordaindu beharko dute tasa.

4. Tasa hauek astero sortuko dira eta ezingo dira murriztu. Hiru hilean behin edo, epe hori baino lehen amaituko balitz, baja aitortpena aurkeztean likidatuko dira.

5. Tasa honi dagozkion obrak eta aprobetxamendua egiteko interesa duten pertsona edo erakundeek lizentzia egokia emateko eskatu beharko diete aurretiaz udal administrazioari. Horretarako, obra edo aprobetxamenduaren izaera, iraunaldia eta beharrezko azalpenak jaso beharko dira, bai lizentzia eman daitekeen aztertzeko, bai ordainarazpena aplikatzeko.

6. Tasa honi dagozkion elementuak kendu direnean, interesdunek bidezko baja aitortpena aurkeztu beharko dute eta baja aurkeztu osteko astetik aurrera egongo da indarrean. Hala egin ezean, tasak aplikatzen jarraituko da eta ezingo dira horiek erreklamatu edo itzuli.

7. Ordainketa egin behar duen fidantza jarri beharko du, instalazioa epe barruan kentzen dela bermatzeko. Baja aitortpena aurkeztu denean eta udal teknikariak aldeko aurretiazko txostena eman duenean itzuliko da fidantza.

8. Epigrafe honetan zehazten diren obrak bi hilabete baino gehiago etengo balira arrazoi justifikaturik gabe, tarifa ezartzearen ondorizko kopuruek ehuneko 50eko errekarua izango dute, hirugarren hilabetetik aurrera, eta, obrak amaitu ondoren aprobetxamenduek jarraitzen badute, kopuru horiek ehuneko 100ean gehituko dira.

9. Eraikinen fatxadak berrezarri, garbitu edo birgaitzeko obren ondorioz instalatu behar diren hesi edo aldamierei dagozkien tasak ehuneko 50 murriztuko dira, betiere instalatzeko epea hiru hilabetetik beherakoa bada. Interesdunak eskatu beharko du murrizketa hori obra amaitzen denean, baja aitortpenarekin batera. Onartuz gero, gehiegi ordaindutakoa itzuliko da.

10. Udal bide publikoetan trakzio mekanikoko ibilgailuen aparkalekurako guneeetan instalatzen diren hesi eta aldamierei dagozkien tarifak ehuneko 25 igoko dira.

2. Tarifak.

Epigrafe honetan araututako instalazioek ez dute inola ere 6 euro baino gutxiago ordainduko.

Lehenengo tarifa. Hesiak, aldamiak, plataformak eta karga jasogailuak.

Hesiak, aldamiak, plataforma igogailuak eta karga jasogailuak, obra edo instalazio orenen aurrean jarriak: metro koadroko eta asteko: 2 euro. 0,86 euro.

Bigarren tarifa. Gainerako elementuak:

Bide publikoan edukiontzia edo elementu osagarri edo lagungarriak jartzen badira material eta hondakinak, garabiak, etxolak, siloak, masaderak edo antzeko elementuak garraiatu, gorde edo jasotzeko, obran bertan edo kokaleku horretan: metro koadroko eta asteko: 1,20 euro.

3. Fidantzak.

Fidantza baimenari dagokion zenbatekoaren hirukoitza izango da.

Fidantza dirutan edo kreditu erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal solidario bidez eratu ahalko da. Premiaz tramitatu behar diren lizentzien kasuan, fidantza nahitaz eratu beharko da dirutan.

IV. Epigrafea. Tokiko jabari publikoa era berezian aprobetxatzea, interes orokorreko hornidura zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen alde

1. Oinarriak eta izaera.

Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 57., 20. eta 24.1 artikuluetan eta uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoaren babesean arautzen da interes orokorrekoak diren edo auzokide gehienei edo kopuru handi bati eragiten dieten hornidura zerbitzuak ematen dituzten enpresek udal bide publikoetako lurzorua, lurpearen edo lurgainaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu berezian tasa, zerga ordenantza honi jarraituko diona.

Hori dela eta, honako hauek dira hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak:

a) Argindarraren, uraren edo gasaren hornidura eskaintzen duten enpresak.

b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, telekomunikazio sare publikoak zati batean edo osorik erabiliz, eta udaleko bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurgaina era pribatuan erabiltzen duten edo horien aprobetxamendu berezia egiten dutenak, sare edo instalazio horien titularrak edozein dela ere.

c) Beste edozein hornidura enpresa, baldin eta udalaren lurzorua, lurpea edo lurgaina okupatzen duten hodi, kable edo bestelako instalazioak erabiltzen badituzte hornidurak gauzatzeko.

Ondore horietarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira. Tasa hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezingo zaie jasanarazi epigrafe honetan aipatzen diren hornidura zerbitzuen erabiltzaileei.

2. Zerga egitatea.

1. Tasa honen zerga gaia hau da: interes orokorrekoak diren edo auzokide gehienei edo kopuru handi bati eragiten dieten hornidura zerbitzuak emateko jabari publikoa erabiltzen duten enpresa edo entitateek udal bide publikoetako lurzorua, lurpearen edo lurgainaren erabilera berezia edo aprobetxamendu bereziak.

2. Jabari publikoaren aprobetxamendu berezia izango da baldin eta hornidura Zerbitzua emateko udal bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurgaina materialki okupatzen duten antena, instalazio edo sareak erabiltzen badira, horien titularrak edozein dela ere.

3. Tasa kalkulatzeko araubide berezi hau ez zaie aplikatuko telefono mugikorren zerbitzuei.

3. Subjektu pasiboa.

Subjektu pasibotzat joko dira interes orokorrekoak diren edo auzokide gehienei edo kopuru handi bati eragiten dieten hornidura zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak edo enpresak, hornidurak ematen dituzten sareen titularrak badira, edo, hala izan ezen, horiek erabili, eskuratu edo lotzeko eskubideen titularrak badira.

4. Zerga oinarria.

1. Subjektu pasiboa bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurgaina okupatzen duen sarearen titularra bada eta sare horren bidez tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia gauzatzen bada, ordenantza honetako 3. artikuluan aipatutako enpresa edo erakundeek udalerrian urtero eskuratzen duten fakturazioaren diru sarrera gordinak izango dira zerga oinarria.

2. Aurreko apartatuan adierazi den aprobetxamendu berezia gauzatzeko orduan subjektu pasiboak besteen sareak erabili baditu, udalerrian urtero eskuratutako diru sarrera gordinak izango dira tasaren zerga oinarria, sare erabiltzeagatik horren titularrari ordaindu behar dizkion kopuruez gutxituta.

3. Fakturazio bidez lortutako diru sarrera gordinak izango dira entitate bakoitzak bere ohiko jarduerara eginez udalari horretan emandako zerbitzuen ordain gisa jaso dituenak, erakunde horri egotzi ahal bazaizkio; aparteko gertaera edo jarduerak sortutako diru sarrerak soilik baztertuko dira.

Besteak beste, honako kontzeptuen fakturazioak hartuko dira diru sarrera gordintzat:

a) Enpresaren jardueraren interes orokorreko hornidura edo zerbitzuak, harpidedunek udalerrian egindako kontsumoei dagozkionak.

b) Kontsumitzaileei emandako zerbitzuak, beharrezkoak direnak enpresaren xede den interés orokorreko zerbitzua edo hornidura jasotzeko; horien artean sartzen dira enpresaren jabetzako instalazio edo kontagailuak sarean lotu, martxan jarri, zaindu, aldatu, konektatu, deskonektatu eta ordezkatzeko lanak.

c) Subjektu pasibo izaera duen entitatearen sarea erabiltzen duten eta zerbitzuak ematen dituzten beste enpresa batzuetatik hartutako alokairuak, kanonak edo elkarrekiko konexiorako eskubideak.

d) Kontsumitzaileek kontagailuak edo hornidura edo zerbitzua emateko bestelako bitartekoak erabiltzeagatik ordaindu behar dituzten alokairuak.

e) Enpresa hornitzaileen berezko jardueraren ondoriozko zerbitzuengatik fakturatzen diren bestelako diru sarrerak.

4. Ez dira diru sarrera gordin izango, ondore hauetarako, eskainitako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta tasaren subjektu pasiboa den entitatearen beraren diru sarrera ez diren eta hirugarrenek kobratu dituzten partidak edo kopuruak ere.

5. Ez dira fakturazioko diru sarrera gordintzat hartuko honako kontzeptu hauek:

a) Enpresek jasotzen dituzten ustiapen edo kapitaleko dirulaguntzak.

b) Kalte edo galerengatik eskatutako ordainak, ez baldin badira 3. apartatuan zehaztutako diru sarrera gordinetan sartu beharreko eta kobratu gabeko kopuruen konpentsazioa edo ordaina.

c) Finantza sarrerak, hala nola interesak, dibidenduak eta antzeko izaera duten besteak.

d) Enpresak bere ibilgeturako egindako lanak.

e) Bere ondarearen osagai diren ondasun eta eskubideak besterentzearen ondoriozko kopuruak.

6. Arau honetan ezarritako tasak bateragarriak dira udalaren eskumeneko jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko ezar daitezkeen gainerako tasekin, baldin eta arau honetan aipatutako enpresak horien subjektu pasibo badira, Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, ez dituzte ordaindu beharko udaleko bide publikoetako lurzoruen, lurpearen edo lurgainaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren ondoriozko beste tasa batzuk, tasa hau ordaindu dutelako.

5. Zerga kuota.

Tasaren zenbatekoa zehazteko, ehuneko 1,5 aplikatuko zaio gorago definitu den zerga oinarriari.

6. Aitorpen eta ordainketa araubidea.

1. Tasa honetarako, autolikidazio araubidea ezarri da. Hiru hilean behin egin beharko da eta dagokion hiruhileko naturalean fakturatutako diru sarrera gordin guztiak jasoko ditu. Interes orokorreko edozein homidura edo zerbitzu emateari utziz gero, dagokion hiruhilekoaren autolikidazioan gertaera hori adierazi beharko da, baita amaiera data ere.

2. Dulantziko Udalari udalerrian egindako hornidura mota bakoitzerako autolikidazio bat aurkeztuko zaio, zerga oinarria osatzen duten taldeetako bakoitzak jasotako sarreran bolumena zehaztuz, epigrafe honetako hirugarren aplikazio arauan zehaztutakoaren arabera. Aipatutako zehaztasunaren adierazpenak, c) letran aurreikusitako kontzeptuari dagokionak, jaso beharko du zerbitzuak ematen dituzten eta bidesari moduan kopururen bat fakturatu zaien enpresen identifikazioa.

a) apartatuan aipatutako hornidurengatik aitortutako diru sarrera guztien zenbatekoa ezingo da izan udalerrian instalatutako kontagailu edo bestelako neurgailuetan erregistratutako kontsumoen batura baino txikiagoa.

3. Besteren baten sareak erabiltzen dituzten enpresek sareetako titularrei ordaindutako kopurua egiaztatu beharko dute, ordenantza honetako 6.2 artikuluan aipatzen den diru sarreran murrizketa justifikatze aldera. Egiaztapen horrekin batera, erabilitako sarearen jabe den enpresa edo entitatearen identifikazioa aurkeztuko da.

4. Hiruhileko autolikidazioa hurrengo hilaren azken eguna baino lehen aurkeztu beharko da, edo, egun hori baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean. Era berean, epe horretan ordainduko da autolikidazioaren zenbatekoa.

5. Aurreko puntuan ezarritako epearen ondoren egindako diru sarreren edo aurkeztutako autolikidazioen kasuan, denboraz kanpoko errekaruak eskatuko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

V. Epigrafea. Ibilgailuak espaloietatik finka barrura sartzeko eta bide publikoak aparkaleku eskusiborako, ibilgailuen geltokirako eta edonolako salgaien zamalanetarako erreserbatzea

1. Aplikazio arauak.

a) Tasa honen barruan sartzen dira ibilgailuak galtzadatik eraikin eta orubeen barrura sartzean eta aparkaleku erreserban edo zamalan eta geralekuetako abantaila berezietan bide publikoari egiten zaizkion aprobetxamendu bereziak.

b) Espaloiaren zabalera ertz behertuaren metro linearen arabera zehaztuko da, behertuta dagoen kasuan. Espaloiaren ertza ez badago behertuta, ez eta espaloia kenduta ere, dena delako lokalera edo orubera sartzeko zuloaren luzera erabilgarria izango da, oso-osorik.

c) Pasabideak eta aparkaleku erreserba instalatu, zaindu, berritu eta kentzeko nahiz horiek seinalezatutako gastuak eskatzaileek ordaindu beharko dituzte.

d) Ez da emango espaloia eta ertz beherturik ez daukan eskubiderik.

e) Erkidegoko aparkalekuen kasuan, jabeen erkidegoak izango dira subjektu pasiboak. Edonola ere, erkidegoak tasa ordainarazi ahal izango diete partzelen jabeei.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Ibiak.

1.1. Aparkaleku erreserba daukaten pasabideak.

A) Familia bakarreko etxebizitzarako edo antzekorako erabilera partikularreko pasabide bakoitzeko: 25,62 euro urteko.

B) 25 plaza izan ditzakeen lokalerako erabilera partikularreko pasabide bakoitzeko: 23,01 euro metro lineal eta urteko.

C) 26 eta 50 plaza artean har ditzakeen lokalerako erabilera partikularreko pasabide bakoitzeko: B) atalean zerrendatutako tasaren gaineko ehuneko 10eko igoera.

D) 50 plaza baino gehiago har ditzakeen lokalerako erabilera partikularreko pasabide bakoitzeko:
B) atalean zerrendatutako tasaren gaineko ehuneko 20ko igoera.

E) Merkataritza, industria edo antzeko erabilera pasabide bakoitzeko: 23,01 euro metro lineal eta urteko.

Tarifa horiek ehuneko 25eko erretegia izango dute 3 tonatik gorako kamioiek, autobusek eta atoiak erabiltzen dituzten pasabideei aplikatzean.

F) Garraio agentzietan eta gasolindegietan baimendutako pasabide bakoitzeko: 256,25 euro urteko.

1.2. Aparkaleku erreserbarik ez daukaten pasabideak.

1.1. Tarifako A) eta E) arteko ataletako epigrafeei ehuneko 25eko beherapena aplikatuko zaie.

Bigarren tarifa. Aparkaleku eskusiborako, ibilgailuen geltokirako eta edonolako salgaien zabalenerako erreserbatutako bide publikoa.

A) Etengabeko erreserba:

– Bide publikoan aparkalekua erreserbatuz gero, metro lineal edo frakzioko urtean: 25,62 euro.

B) Orduetara mugatuarekin erreserbatuz gero:

– Etengabeko tarifa aplikatuko da, ehuneko 50eko murrizketarekin.

Hirugarren tarifa. Baimen bereziak.

Eraikitzen ari diren edo obrak edo bestelakoak jasaten ari diren eraikinetako pasabide bakoitzeko. Metro lineal edo frakzioko, hilean: 20,50 euro.

VI. Epigrafea. Udal biltegiak, aparkalekuak eta gordailuak aprobetxatzea

1. Aplikazio arauak.

1. Ordaintzera behartuta daude zerbitzua eginarazi duten pertsonak, halakotzat hartuz kendutako ibilgailuen gidariak eta, era subsidiarioan, haien jabeak, erabilera bidegabean kasuan izan ezik.

2. Ibilgailua kentzeak sortzen dituen gastuak gidariaren edo jabearen kontura izango dira, legez ezarritako moduan.

3. Ordaindu beharra sortzen da ibilgailua kentzeko lanak hasten direnean, eta hasi direla ulertzen da garabia kendu behar den ibilgailuaren ondoan dagoenean, salbu eta gidariak kentzeko ezintasun materiala justifikatzen bada.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Udal biltegiak, aparkalekuak eta gordailuak aprobetxatzeagatik.

– Okupatutako azalerako metro koadro bakoitzeko, 1,20 euro egunean.

Bigarren tarifa. Agintari desberdinek ezarritako agindu judizialen bidez gorde eta bildutako objektuak, bide publikoan abandonatuta aurkitzeagatik, edo bestelako arrazoien ondorioz udal biltegi edo gordailuetan sartzen direnak.

– Metro koadro bakoitzeko 1,20 euro egunean.

Hirugarren tarifa. Ibilgailuak horretarako gaitutako gordailuetan uztea.

Ibilgailuak bide publikotik horretarako egokitutako gordailura eramatea, baldin eta ibilgailu horiek zirkulazioa oztopatu, eragotzi edo moteltzen badute, zirkulaziorako arriskugarriak badira edo alorreko beste lege mailako arau batzuetan horrela xedatuta badago.

Kendutako ibilgailuak gordetzeagatik:

Motozikletak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, eguneko edo frakzioko	2,20 euro eguneko
Turismo, furgoneta eta antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak, gehienez 1.000 kg-ko tara dutenak, eguneko edo frakzioko	8,80 euro eguneko

Kamioiak, traktoreak, atoiak, furgonetak eta antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak, gehienezko 1.000 kg-ko tara dutenak, eguneko edo frakzioko	28,00 euro eguneko
---	--------------------

VII. Epigrafea. Udalaren erabilera publikoko lursailak mahai, aulki, taula eta antzeko elementuekin okupatzea, irabazi asmoz

1. Aplikazio arauak.

1. Ordainarazpen honen barruan sartzen dira mahai, aulki, mahaitxo edo antzeko elementuekin okupatutako bide publikoak edo erabilera publikoko ondasunak.

2. Okupatzeko baimena ematen duen udal lizentzia ematean sortzen da ordaintzeko betebeharra, edo, baimenik gabe eginez gero, benetan okupatzen denetik aurrera. Baimenak jasotzen duen aldiagatik kobratuko da tasa eta, eperik ez balego, gutxienez sei hilegatik, benetan egiten den okupazioa gorabehera.

3. Lizentziak bertan ezarritako funtzionamendu aldirako emango dira eta automatikoki berrituko dira hurrengo urteetarako edo sei hilabeteetarako, interesdunak berariaz uko egin ezean.

4. Tasa ordaindu beharra izango dute udal baimenaren titularrek eta, baimen gabe, tasa honen xede diren edozein elementuekin bide publikoa okupatzen dutenek. Ordaindu beharra dute, ordea, okupatzen duten establezimenduetako jabeek edo titularrek.

5. Tasa sortu dela ulertuko da zerga ordaintzeko betebeharra sortzen denean eta eska daitezkeen kuotak murriztu ezinak eta hainbanatu ezinak direnean, horiek aprobetxatzeko denbora edozein izanda ere. Halaber, ordainagiria aurkeztuta gauzatuko dira, sortu osteko hamabost egunen buruan.

6. Ez dute tasa ordaindu beharrik edukiko, harrera eta ekitaldi publikoetan agintari eta erakunde publikoen erabilerarako diren instalazioek, eta hertsiki ongintzarako direnek.

7. Baimenaren bajarako edo eskualdaketarako eskaerak onorioak izango dituzte udalari berariaz eta idatziz jakinarazten zaion egunetik aurrera.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Mahaiak eta aulkiak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak, berogailuak eta abar.

Honako kuota sortuko dute:

	Urtean
Mahai bat eta 4 aulki, eguzkitakoarekin	40,00 euro
Aurreko albo babesetan eusten diren behin-behineko estalkiak edo antzekoak, metro koadroko	3,00 euro

Bigarren tarifa. Upelak, aulki gabeko mahai altuak eta bankuak edo antzekoak.

Udal erabilera edo jabari publikoko lursailetan instalatutako unitate bakoitzeko, urtean 10 euro.

Hirugarren tarifa. Jaietan establezimenduetatik kanpo jartzen diren barrak.

Herriko jaiak direla-eta establezimenduen kanpoaldean edo kanpotik erabiltzeko jartzen diren barrak, eguneko eta baimeneko: 20,00 euro.

Laugarren tarifa. Terrazetarako ezarritako ordutegitik kanpo mahaiak eta aulkiak bide publikoan pilatu eta biltzea.

	Urtean
Okupatutako bide publikoko metro koadroko	20,00 euro

VIII. Epigrafea. Tribunak, eguzki oihalak, balkoiak, begiratokiak eta antzeko beste instalazio batzuk bide publikoaren gainetik edo fatxadako lerroaren gainetik

1. Aplikazio arauak.

1. Tasa honen zerga gaia dira bide publikoaren edo fatxada lerroaren gainetik dauden balkoi, zabaltza, terraza, begiratoki edo bestelako eraikuntza elementuekin edo bide publikoaren gainetik dauden olana, gortina, errotulu, markesina edo bestelako instalazioekin bide publikoaren edo udal erabilera publikoko beste ondasun batzuen lurgainari egiten zaion erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

2. Erabilera edo aprobetxamendu bereziaren lizentzia, emakida edo baimen egokia ematean sortzen da tasa, bai eta zerga ordaintzeko betebeharra ere, edo, nahitaezko baimena eskatu ez bada, erabilera edo aprobetxamendu hori egiten denetik aurrera.

2. Zerga kuota

Lehenengo tarifa. Olanak, zutoinak eta antzekoak.

Olana, fatxadaren metro edio frakzioko, urtean	5,00 euro
Markesinak, azalearen metro koadro edo frakzioko, urtean	8,00 euro
Publizitate errotulu edo zutoinak, bide publikoan proiektatutako azalearen m2 edo frakzioko, urtean	10,00 euro
Begiratokiak, galeriak eta balkoak, metro koadro edo frakzioko, behin	30,00 euro

Jabari publikoko lurgaina balkoi, galeria edo begiratokiekin okupatzen bada, urtean behin ordaindu beharko dira ezarritako tasak, dagokion obra lizentzia ematean.

Bide publikoa errotulu edo iragarkiekin okupatuz gero, kartela edo errotulua neurtuko da eta irudi geometrikoaren gunea proiektatuta egongo da, erregularra edo irregularra izanda ere. Ondorio horietarako, ez dute tarifarik ordainduko fatxadako lerrotik 10 zentimetro baino gutxiago iritien diren iragarki eta errotuluek. 10 zentimetro baino gehiago iritien direnek okupazio osoari dagozkion tarifak ordainduko dituzte.

IX. Epigrafea. Bide publikoetan edo udalaren jabari publikoko lursailetan edo horien gainetik hegan jartzea argindar, ur, gas edo bestelako isurietarako hodi, galeria eta lineak, baita lineetarako zutoinak, klabeak, tximeleta azkoinak eta amarratze, banaketa edo erregistroko kutxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikoko gailuak eta antzeko bestelakoak ere

1. Aplikazio arauak.

1. Hona hemen tasa horren gaiak: bide publikoetako lurpearen, lurzoruaren edo lurgainaren aprobetxamendu bereziak eta erabilera publikoa duen udal jabaria. Jabari hori honako hauek okupatuta egon daiteke: kableak, hodiak, linea elektrikoak, ur eta gas hodiak, zerbitzu galeriak, lurpeko ganbera eta konektoreak, transformadoreak, andelak, erregai eta beste jariakin batzuetarako tankeak, zutoinak, tximeleta azkoinak, aireko lineak, amarratze, banaketa edo erregistroko kutxak, baskulak, salmenta automatikoko gailuak, transformadoreak, biltegiak, hornigailuak, argazki kabinak eta bestelako zernahi instalazio.

Dulantziko Udalak badu bidea osorik edo haren zati bat zaintzearen edo mantentzearen ardura, udal bide izango da.

2. Araubide honetan ez dira sartuko tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziaren tasak, interes orokorreko hornidura zerbitzuak ematen dituzten enpresen alde, IV edo V. epigrafean jasotako eran.

3. Urtero ordainduko da ordenantza honetako tarifen adierazitako kuota. Kuota hori ezin izango da ez murriztu ez hainbanatu, eta hura ordaintzeko beharra urtearen lehenengo egunean sortuko da, salbu eta ordaintzeko beharra gerora sortu bada. Horrelakoetan, egun horretatik aurrera ordainduko da.

4. Aprobetxamendurako eskubidea ematen duen udal lizentzia edo baimena jasotzeak eragingo du ordaintzeko beharra edo, hartarako baimenik ez badago, aprobetxamendua gauzatzeak berak.

5. Udal lizentzien edo emakiden titularrak, bide publikoetako lurpea, lurzoria edo lurgaina okupatzen duten pertsonak eta erakundeak edo okupazioaren onuradunak daude behartuta ordaintzera.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Hoditeriak.

1. Behe tentsioko metro lineal edo frakzioko, gehienez ere hiru eramailek eta neutro batek eratuta, honako hau ordainduko da urteko:

		Lurpekoak	Airekoak
a)	Sekzioa ($\leq 10 \text{ mm}^2$)	0,04 euro	0,06 euro
b)	Sekzioa (11 - 50 mm^2)	0,06 euro	0,10 euro
c)	Sekzioa (51 - 200 mm^2)	0,07 euro	0,19 euro
d)	Sekzioa (201 - 500 mm^2)	0,19 euro	0,28 euro
e)	Sekzioa ($> 500 \text{ mm}^2$)	0,41 euro	0,00 euro

Gutxienez 75 euro.

Lurpeko instalazioak zenbait linea eramaile jasotzen dituen hodi batean sartzen badira, likidazio oinarri izango da linea guztien sekzioen batuketa.

Airetiko lineei gagozkiela, linea berri izango da hiru eramaile eta neutro bakoitzaren batuketa, eta likidazio oinarri, eroanbide guztien sekzioen batuketa.

2. Tentsio altuko eramaile elektrikoko metro lineal edo frakzioko, urtean 0,49 euro.

3. Berariaz tarifatu gabeko kableak, metro lineal edo frakzioko eta urteko:

– Lurpekoak: 0,07 euro.

– Airekoak: 0,17 euro.

Bigarren tarifa. Hodiak.

Likidoak edo solidoak eramateko, lurpeko hodiaren metro lineal edo frakzioko eta urteko:

a)	$\leq 50 \text{ mm}$ -ko diametroa	0,06 euro
b)	51-100 mm -ko diametroa	0,09 euro
c)	101-200 mm -ko diametroa	0,21 euro
d)	201-500 mm -ko diametroa	0,60 euro
e)	$\geq 500 \text{ mm}$ -ko diametroa	2,03 euro

Gutxienez 75 euro.

Hirugarren tarifa. Transformadoreak.

Bide publikoko argindar transformadoreak.

a) Okupazio ez bada 20 m2 baino handiagoa, urtean 32,10 euro.

b) Okupazioa 20 m2 baino handiagoa bada, urtean 48,12 euro.

Lurpeko transformadoreak: bakoitzeko eta urteko: 50,62 euro.

X. Epigrafea. Udal bide publikoetako lurzoruaren, lurgainaren edo lurpearen beste edozein erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi

1. Aplikazio arauak.

Pertsona fisiko edo juridikoen alde ematen diren udal jabari publikoko bestelako aprobetxamendu berezi edo erabilera pribatiboek Dulantziko Udalak ezartzen dituen eskubide eta tasak ordaindu beharko dituzte, kasuan kasuko ezaugarriak eta berezitasunak kontuan hartuta.

2. Tarifak.

Lehenengo tarifa. Lurzoruaren aprobetxamendua:

1 A.-	$\leq 2 \text{ m}^2$ erdiko erregistro kutxatilik	3,00 euro urtean
1 B.-	$\geq 2 \text{ m}^2$ erdiko erregistro kutxatilik	6,00 euro urtean
2.-	Tentsio altuko banaketa edo deribazio kutxak	3,00 euro urtean
3 A.-	Fatxadetan instalatutako ondasun edo zerbitzuen salmenta edo alokairurako gailu edo makina saltzaile automatiko bakoitzeko, betiere erabiltzaileari bide publikoan ematen bazaio Zerbitzua	25,00 euro urtean

3 B.-	Gailu horiek udal lokal edo eraikinetan jarriz gero	36,00 euro urtean
4.-	Gasolina, lubrikagarri, aire eta abarren hornigailuak. Unitate bakoitza.	60,00 euro urtean
5.-	Argazki kabinak eta postontziak, m2 edo frakzioko	30,00 euro urtean
6.-	Olio astunak, ikatza edo beste material batzuk deskargatzeko tobera, estalki edo ahoak. Bakoitzeko:	
	a) okupazioa: $\leq 1/2$ m2. Urteko	8,00 euro urtean
	b) okupazioa: $\geq 1/2$ m2 Urteko	20,00 euro urtean
7.-	Kutxazain automatikoak, kutxa gotorrak edo antzekoak, fatxadetan instalatuak, gordailu erakundeen edo bestelako finantza entitateen eskutik, betiere erabiltzaileari bide publikoaren parean ematen bazaio zerbitzua, fatxada lerroan	350,00 euro urtean

Bigarren tarifa. Lurpearen aprobetxamendua:

1.-	Goi tentsioko banaketa edo deribazio kutzak, lurpean	3,00 euro urtean
2.-	Lurpearen aprobetxamendua: metro koadroko	0,75 euro urtean

Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren eta ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzuaren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, tasak ezarri eta eskatzen ditu ordenantza honetan, zerbitzu publikoak eskaintzeagatik edo jarduera hauek egiteagatik:

- I. epigrafea. Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko zerbitzua.
- II. epigrafea. Ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzua.

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatzen da.

II. Zerga egitatea

2. artikulua

1. Zerga egitatea da zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio jarduerak egitea, baldin eta subjektu pasiboari badagozkie edo batez ere haiei eragin edo onura ematen badiete, 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola edo hari erreferentzia egiten diola ulertuko da, baldin eta subjektu pasiboak berak eragin badu, zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz Dulantziko Udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiengatik, herritarrek zerbaitez hormitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.
3. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboak

3. artikulua

1. Subjektu pasibo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.
2. Etxebizitzan edo lokalen erabiltzaileei onura eman edo eragiten dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun higiezin horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkariak, eta haiek kuotak ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei, hala dagokionean.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

4. artikulua

Ordenantza honek bere epigrafe bakoitzean xedaturikoaren mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta beste onura fiskal batzuk ematea.

V. Zerga oinarria

5. artikulua

Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zer zuzeneko gastuk edo zeharkakok osatzen duten zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa, baita zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnak.

VI. Kuota

6. artikulua

1. Zerga kuota zehazteko, epigrafe bakoitzak jasoriko tarifetatik, egokitzen dena aplikatuko da, betiere hura aplikatzeko arauen arabera.

VII. Sortzapena eta zergaldia

7. artikulua

Tasa noiz sortzen den:

- Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hastearrekin batera; nolani ere, lanari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.
- Jarduera edo espedientea abiarazteko eskaera aurkezten denean, zeina ezin izango baita egin edo izapidetu ordaindu beharrekoa ordaindu arte.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

8. artikulua

Dulantziko udal administrazioak egingo ditu kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak, kasuan kasuko tarifetan jasoriko ordainarazpen bakoitzaren arau berezien arabera. Dena den, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

IX. Tasen kudeaketa

9. artikulua

Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak eta indarreko lege xedapenek ezarritakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. epigrafea. Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko udal zerbitzua ematea

I. Ordainarazten den gaia

1. artikulua

Kontzeptu hauengatik ematen diren zerbitzuek eragiten dute ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra:

- Etxebizitza, egoitza, laborategi eta industria establezimendu, merkataritza establezimendu eta antzekoetako zaborrak eta hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea.
- Berokuntza zentralen ondorioz sortutako zepa eta errautsa bildu, garraiatu eta tratatzea.
- Udalaren bide publikoetara bota diren edo han utzi diren zaborrak eta obra hondakinak kendu, garraiatu eta tratatzea.

Hori guztia, bai udalak berak zerbitzua zuzenean kudeatu, bai Arabako Lautadako Kuadrillaren, udal enpresaren baten zein kontratistaren baten bitartez.

II. Subjektu pasiboak

2. artikulua

- Zaborrak biltzeko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasen subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta ordenantza honetan araututako udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz gozatzen badute edo eragin egiten badiete.
- Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egingo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik eta, horren ondorioz, udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu.
- Lokalen erabiltzaileei onura ematen dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun horien jabeak izango dira zergadunaren ordekoak, eta haiek ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei kuotak, hala badagokio.

3. artikulua

Zaborrak biltzeko zerbitzua ematea udalarentzat derrigorrezkoa denean, tasa sortuko da nahiz eta interesa dutenek zerbitzu horien erabilerarik sorrarazten ez duten. Gainerakoek borondatezko izaera izango dute eta eskatuta emango dira.

4. artikulua

Derrigorrean eman beharko zaie hauei zaborra biltzeko zerbitzua: familien etxebizitza, ostatu, hotel, elizaren etxe, klinika, ikastetxe, egoitza, bulego, biltegi eta gastronomia elkarteak; baita industria eta merkataritza jardueren, jarduera profesionalen, eta zerbitzuen jardueren kokagune diren edo izan daitezkeen lokalei ere.

Zaborrak biltzeko udal zerbitzua higiezinaren kokaleku den zonan dagoenean eta funtzionatzen ari denean joko da emantzat zerbitzua.

Higiezinan inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa.

Borondatezkoa da bildu, garraiatu, bota eta deuseztatzea fabrika eta lantegien industria prozesuetan eta lanketan sortutako hondakin solidoak; obra eta eraispentetan pilatutako hondakin eta lurra; ospitale, klinika eta osasun zentroyen detrituak, eta material kutsatuak edo arriskutsuak.

III. Zerga oinarria eta salbuespenak

5. artikulua

Zerga oinarria ordenantza honetako xedapen orokorretako 5. artikuluan jasotzen dena izango da.

6. artikulua

Tasa honetatik salbuetsita daude Dulantziko Udalarenak diren higiezinak eta bertako administrazio batzarrenak, beren helburuak betetzeko erabiltzen badira.

Ez dira salbuetsiko etxebizitza edo lokalen errentadunak, etxebizitza eta lokalok udalarenak izan zein administrazio batzarrenak; ez eta udal ondasunen emakidadunak eta lagapendunak ere.

IV. Zerga kuota

7. artikulua

Tasa honi loturiko zergadunek tarifa hauek ordainduko dituzte:

Tarifa	Higiezinako jardueraren deskribapena	Hiruhileko kuota
1	Etxebizitzak	16,01 euro
2	Gehienez 50 m2 dituzten taberna eta kafetegiak eta gastronomia elkarteak	44,29 euro
3	50 m2 baino gehiago dituzten tabernak eta kafetegiak	73,78 euro
4	Jatetxeak eta jantoki kolektiboak	152,94 euro
5	Ostatuak, hotelak, aterpetxeak, landetxeak eta egoitzak	152,93 euro
6	Txokoak	11,86 euro
7	Gehienez 50 m2 dituzten janari dendak	44,28 euro
8	50 m2 baino gehiago dituzten janari dendak	115,53 euro

9	Zerbitzuguneak, gasolina hornitzaileak	152,94 euro
10	Klinikak, egoitza geriatrikoak, anbulatorioak	152,94 euro
11	Elizak eta elizaren beste etxe batzuk	44,29 euro
12	Merkataritzako beste establezimendu batzuk edo establezimendu profesionalak	44,29 euro
13	Banku, aurrezki kutxa eta aseguru etxeak	110,66 euro
14	Nekazaritza biltegiak eta abeltzaintzako instalazioak	44,29 euro
15	Gehienez 1000 m2 dituzten lantegi, biltegi eta industriak	44,29 euro
17	1000 m2 baino gehiago dituzten lantegi, biltegi eta industriak	73,78 euro
18	Merkataritza jarduerarik ez duten lonjak eta beste erabilera batzuk	10,03 euro

Higiezin berean erabilera bat baino gehiago egiten bada, erabilerarik garestienaren tarifa aplikatuko da.

V. Sortzapena eta zergaldia

8. artikulua

1. Tasaren zerga egitatea den zerbitzua edo udal jarduera hasten denean sortzen da tasa, bai eta hori ordaintzeko beharra ere. Ondorio horretarako, higiezinaren kokaleku diren kaleetan edo lekuetan dagoenean etxebizitzetako zaborrak biltzeko udal zerbitzua eta hura funtzionatzen ari denean joko da emantzat zerbitzua.

2. Aurreko puntuan jasorikoa gorabehera, zerbitzuak borondatezkoak badira eta aldeak eskatzen baditu, zerbitzua emateko baimena ematen denean sortuko da zerga ordaindu beharra.

VI. Tasen likidazioa, ordainketa eta kudeaketa

9. artikulua

Hiru hilabetean behin ordaindu beharko dira zerbitzua jasotzeagatik kuotak, ezin daitezke murriztu, eta ordainagiriaren bidez kobratuko dira.

Zerbitzua erabili edo jasotzen den hiruhilekoko lehenengo egunean sortuko da tasa, epigrafe honetako 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

10. artikulua

Aurkeztu beharreko alta, baja eta aldaketa aitorpenak aurkeztu beharko dituzte subjektu pasiboek udal honetan, eta tasa behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren datuak eman beharko dituzte.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hiruhileko horretako lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina altek.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hurrengo hiruhilekoko lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina bajek.

Zerbitzuan egiten diren alta guztiak banku erakundearen bidez helbideratu beharko dira.

11. artikulua

Hiruhilekoa bukatu ondoren kobratuko dira kuotak.

Ordaintzera behartuta daudenean hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilabetearen 25a edo ondorengo lehenengo egun balioduna baino lehenago ordaindu beharko dituzte ordainagiriak borondatezko epean.

II. epigrafea. Ibilgailuak bide publikotik kentzeko udal zerbitzua ematea

I. Xedea

1. artikulua

Tasa honen xedea da ibilgailuak bide publikotik kentzea, baldin eta ibilgailu horiek zirkulazioa oztopatu, eragotzi edo moteltzen badute, zirkulaziorako arriskugarriak badira edo alorreko beste lege mailako arau batzuetan horrela xedatuta badago.

II. Subjektu pasiboak

2. artikulua

Ordaintzera behartuta daude zerbitzua eragin duten pertsonak, halakotzat hartuz bidetik kendutako ibilgailuen gidariak, eta, era subsidiarioan, haien titularrak, salbu eta ibilgailuak bidegabe erabili badira, eta hori justifikatzen badute.

III. Zerga oinarria

3. artikulua

Zerga oinarria izango da enpresa espezializatu baten zerbitzua kontratatzearen kostua eta espedienteak kudeatzeko administrazio jarduerak.

IV. Zerga kuota

4. artikulua

Kudeaketa tasa: 100 euro.

Tasa honi loturiko zergadunek ordaindu beharko dutena da zerga oinarriari ehuneko 115eko zerga tasa aplikatuz sortutako zenbatekoa.

V. Sortzapena

5. artikulua

Ordaindu beharra sortzen da ibilgailua kentzeko lanak hasten direnean, eta hasi direla ulertzen da kendu behar den ibilgailuaren ondoan dagoenean garabia.

VI. Likidazioa eta ordainketa

6. artikulua

Dulantziko udal administrazioak gorago xedatu denarekin bat etorritik likidatuko du tasaren zenbatekoa.

Likidazioan noiz ordaindu jakinaraziko da, zergei buruzko foru arau orokorrak ezarritakoarekin bat etorritik.

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluek, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia eta uztailaren 13ko 25/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik, Dulantziko Udalak ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz. Tasa horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga egitatea da udal administrazioak subjektu pasiboari bereziki eragiten dion edo onura dakarkion udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo omisioek zeharka eragin dutelako.

2. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

* Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

Kirol etxeko tokien lagapen berezia

Jarduerak, lantegiak, prestakuntza ikastaroak, hitzaldiak... egiteko eskatzea

- Udalak baimendu beharko du lagapena eta, edonola ere, udalak ezarritako baldintzak zehaztuta bideratuko da.
- Udal kontuhartzaitzak ere izango du zer esana tokia lagatzean. Esku hartze horrek ordutegiak aldaraz ditzake edo aldi baterako eten jarduera bat. Aldaketa edo etete horien aurka ezin da erreklamaziorik jarri.
- Lagapenak ezin izango du eraginik izan ohiko erabileran eta ezin izango du antolaketa arazorik ekarri.
- Lagapena ezin da bidegabeba izan, ez udalaren esku hartzeetan ez udalerriko elkarteek edo erakundeek garatzen dituztenetan.
- Instalazioen funtzionamendu eta erabilera arauak beteko dira.
- Egin beharreko programa jakinaraziko da, bai eta programa horretan izena eman duten pertsonen zerrenda eta horiek ordaindutakoa.
- Erakunde pribatuek eta partikularrek JEZeant alta emanda daudela erakutsiko dute.
- Eskolak, lantegiak, ikastaroak, hitzaldiak... emateko bada, horiek emango dituzten pertsonen nahikoa gaitasun eta titulazio dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- Behar izanez gero, erantzukizun zibileko aseguruia.
- Lagapenaren arduradun izango den pertsona bat izango da.
- Lagapena bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta instalazio ezegoki erabiltzen dela atzematen bada; alegia, utzikeria dela-eta zerbait apurtzen bada edo lagapenaren helburu ez zen beste edozertarako erabiltzen bada. Zerbait apurtzen edo hondatzen bada, haien konponketa ordaindu beharko da.
- Udalak eskubidea du utzi ala ez erabakitzeko, lagapenaren helburua udalaren helburuekin bat datorren ala ez kontuan harturik.

- Gizarte jarduerak edo interes publikoko jarduerak egiteko elkarrean udal erregistroan izena eman duten gizarte eta kirol elkarte eta taldeei lagatzea.

Salbuetsita. Dena den, udalak eskubidea du, helburuetan edota programan oinarrituta, erabilera doan uzteko edo hobariak emateko.

- Pertsona juridikoek, erakunde pribatuek, herritik kanpoko kultura eta kirol elkarteek eta talde edo elkargo profesionalak antolatutako merkataritza jardueretarako lagatzea.
 - Gimnasioa: 41 euro orduko
 - Bilera gela: 15,50 euro orduko
 - Aldagelak erabiltzea: 18,50 euro/aldagela
 - Aparteko garbiketa: 51 euro/aldagela
 - Gimnasioaren aparteko garbiketa: 82 euro
 - Bilera gelaren aparteko garbiketa: 20,50 euro
 - Lagapen ez puntual baterako fidantza: 1.020 euro

* Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

Gimnasioaren (eraikin gorria) lagapen berezia

Jarduerak, lantegiak, prestakuntza ikastaroak, hitzaldiak... egiteko eskatzea

- Udalak baimendu beharko du lagapena eta, edonola ere, udalak ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- Udal kontuhartzaitzak ere izango du zer esana tokia lagatzean. Esku hartze horrek ordutegiak aldaraz ditzake edo aldi baterako eten jarduera bat. Aldaketa edo etete horien aurka ezin da erreklamaziorik jarri.
- Lagapenak ezin izango du eraginik izan ohiko erabileran eta ezin izango du antolaketa arazorik ekarri.
- Lagapena ezin da bidegabeba izan, ez udalaren esku hartzeetan ez udalerriko elkarteek edo erakundeek garatzen dituztenetan.
- Instalazioen funtzionamendu eta erabilera arauak beteko dira.
- Egin beharreko programa jakinaraziko da, bai eta programa horretan izena eman duten pertsonen zerrenda eta horiek ordaindutakoa.
- Erakunde pribatuek eta partikularrek JEZeant alta emanda daudela erakutsiko dute.
- Eskolak, lantegiak, ikastaroak, hitzaldiak... emateko bada, horiek emango dituzten pertsonen nahikoa gaitasun eta titulazio dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- Behar izanez gero, erantzukizun zibileko aseguruia.

- Lagapenaren arduradun izango den pertsona bat izango da.
 - Lagapena bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta instalazio ezegoki erabiltzen dela atzematen bada; alegia, utzikeria dela-eta zerbait apurtzen bada edo lagapenaren helburu ez zen beste edozertarako erabiltzen bada. Zerbait apurtzen edo hondatzen bada, haien konponketa ordaindu beharko da.
 - Udalak eskubidea du utzi ala ez erabakitzeko, lagapenaren helburua udalaren helburuekin bat datorren al aez kontuan harturik.
 - Gizarte jarduerak edo interes publikoko jarduerak egiteko elkarteen udal erregistroan izena eman duten gizarte eta kirol elkarte eta taldeei lagatzea.
- Salbuetsita. Dena den, udalak eskubidea du, helburuetan edota programan oinarrituta, erabilera doan uzteko edo hobariak emanteko.
- Pertsona juridikoen, erakunde pribatuen, herritik kanpoko kultura eta kirol elkarteek eta talde edo elkargo profesionalen antolatutako merkataritza jardueretarako lagatzea.
 - Gimnasioa: 61 euro orduko
 - Aldagelak erabiltzea: 18,50 euro/aldagela
 - Aparteko garbiketa: 51 euro/aldagela
 - Gimnasioaren aparteko garbiketa: 153 euro
 - Lagapen ez puntual baterako fidantza: 1.020 euro

* Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

Udal igerilekuetako barbakoen erabilera lagatzea

- Erabiltzailea (taldeko kide guztiak sartuta): 0,50 euro, 11:00etatik 20:15era (bainu zona irekita dagoeneko tartea) dagokion sarrera ordainduta, instalazioko bazkide ez bazara.

Udal eraikin eta instalazioak gaua igarotzeko lagatzea gizarte intereseko taldeei

- 10 pertsona edo gutxiago: 4,10 euro/pertsona/egun.
- 11-20 pertsona: 3,10 euro/pertsona/egun.
- 21-30 pertsona: 2,60 euro/pertsona/egun.
- 31 pertsonatik gora: 2,10 euro/pertsona/egun.

Lagapen baldintzak:

- Udalarentzat gizarte interesa duenetan baino ez da baimenduko lagapena.
- Talde eskatzaileak irabazi-asmodun esku hartze baterako egiten badu eskaera, udalak aztertu egingo du helburuak baimena emateko besteko gizarte interes eta garrantzirik ote duen udalerrientzat. Ezezkoan badago, eskaera ez da onartuko.
- Gaua pasatzeko baimena ematen zaien taldeek onartu eta bete egingo dituzte instalazioak erabiltzeko udalak jakinarazitako jarraibideak.
- Erabiltzean kalterik eragiten bada, talde eskatzaileak ordaindu beharko ditu kalteak konpontzeak eragiten dituen gastuak.

Kirol jardueren araudia

Arau honen xedea udalaren kirol jardueren eskaintza arautzea da.

1. Aurrekontu aurreikuspena

Udalaren kirol jardueren eskaintza, arau honetan xedatutakoaren arabera antolatua, horretarako udal aurrekontuetan urtero finkatzen diren aurrekontuko zuzkiduren kontura antolatuko da, aurrekontua burutzeko oinarrietan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Udalaren kirol jarduerak

2.1. Definizioa: Definizioa hauen arabera finkatzen da:

- Kirol jarduerak.
 - 2.1.1 Ikastaroak.
 - 2.1.2 Txangoak.
 - 2.1.3 Txapelketak eta erakusketak.

2.1.4 Ikastaroak

- 2.1.4.1. Tenis ikastaroak.
- 2.1.4.2. Igeriketa ikastaroak.
- 2.1.4.3. Noizbehinkako ikastaroak.
- 2.1.4.4 Hiru hilekoko ikastaroak.

2.1.5. Txangoak.

- 2.1.5.1. Txangoak eskiatzera.
- 2.1.5.2. Beste txango batzuk
- 2.1.5.2.1 Egun bateko txangoak.
- 2.1.5.2.2 Egun bat baino gehiagoko txangoak

2.1.6. Txapelketak eta erakusketak

- 2.1.6.1. Herri txapelketak.
- 2.1.6.2. Partida profesioleatarako sarreren prezioak.

2.2. Jarduerak jardueren eskaintzan onartutako egutegiaren arabera egingo dira.

2.3. Udalak gutxienez 12 inskripzio eskatzen ditu jarduerak hasi ahal izateko. Bereziki konplexuak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako begiraleen tratamendu ezberdina behar duten jardueretan, aldiz, gutxienez 6 pertsonako ikastaroak egin ahalko dira.

Taldeetan gutxieneko pertsona kopuruak ez badu izena ematen, jarduera bertan behera geldituko da eta ordaindutako dirua itzuliko da.

2.4. Udalak eskubidea du ordutegiak eta programaren instalazioak aldatzeko, baita izen emate kopuruaren arabera jarduera bat bertan behera uzteko ere.

2.5. Kirol jardueren egutegia jendearen esku egongo da udal kiroldegian eta kirol teknikariaren bulegoan. Inola ere ez da aurreikusten egunak eta ordutegiak aldatzeko aukera, nahiz eta jarduerak izaera berbera izan. Beraz, inor ezin da taldez aldatu, zerbitzu egokiaren berariazko baimena jasotzen ez badu.

2.6. Jarduerak egitean, begiraleen erantzukizuna izango da:

- Ikasleek instalazioak behar bezala erabiltzea.
- Asistentzia kontrolatzea eta gorabeheren berri ematea udal zerbitzu egokiarri.
- Erabiltzen den materiala kontrolatzea.
- Gela txukun uztea.

2.7. Matrikula tasen bidez edo antzeko kontzepturen baten bidez erregulatuko da. Horren bidez, Dulantziko Udalak urte osoan antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko eskubidea ordainduko da.

2.8. Kirol instalazioak urterako onartzen den egutegian irekita egongo dira. Ezinbestean edo instalazioak hobetzeko itxi ahalko dira; horrek ez du ekarriko kuotarik itzuli beharra, instalazioak ez badira hilabete bat baino luzaroago ixten.

2.9. Instalazioak erabiltzeko prezioa tasen bidez edo antzeko kontzepturen baten bidez erregulatuko da. Horren bidez, Dulantziko Udalaren instalazioak urte osoan erabiltzeko eskubidea ordainduko da.

2.10. Jarduera kuota murriztuko da jardueraren hiruhileko orduen ehuneko 20 eman ez denean, ez bestela.

3. Kirol jardueretan izena ematea

Jardueretan parte hartzeko, izena eman beharko da eta kuota ordaindu. Hori udal kiroldegian egin behar da, eskaintzan azaltzen diren epeetan. Datu hauek adierazi behar dira: Jardueraren izena, izena eta bi deitura (izatekotan), jaioteguna, helbidea, telefono zenbakia (sakelako telefonoarena hobe), eta NAN zenbakia. Jarduera adingabeko pertsona batek egiten badu, aurreko datuez gain hauek ere adierazi beharko dira: amaren, aitaren edo tutorearen izen-deiturak eta NANak.

3.1 Izena emateko epea deialdian ezarriko da.

3.2. Izena emateko unean ordainduko da kuota.

3.3. Ezin da jarduera bererako ordutegi ezberdinetan izena eman.

3.4. Izena emateko epea amaitutakoan, udalak parte hartzaileen zerrendak egingo ditu. Udal kiroldegiko bulegoetan kontsultatu ahalko dira.

3.5. Plaza huts baino inskripzio gehiago badaude, izena eman duten pertsonen artean zozketa egingo da izena emateko epea amaitu ondoko egunean, jardueren eskaintzan besterik adierazten den jardueretan izan ezik. Izena eman duen pertsona bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Zenbaki guztiak zozketan sartuko dira eta zenbaki bat aterako da. Zenbaki hori eta hurrengoak, plaza guztiak bete arte, izango dira taldean sartuko diren pertsonak. Gainerako pertsonak itxaron zerrendan sartuko dira, egokitu zaien hurrenkerara berean.

3.6. Baldin eta 3.5 puntuan azaldutakoa gertatzen bada, udalerrian eta hitzarmenaren barruko udalerrietan erroldatutako bizilagunek lehentasuna izango dute betiere.

3.7. Salbuespenetan, eta alde zurretik jakinarazita, izena emateko hurrenkeraren arabera eman ahalko dira plazak.

Plazarik gabe geratzen diren pertsona guztiak itxaron zerrendan sartuko dira, izena eman duten hurrenkerara berean.

3.8. Beharrezkotzat jotzen bada, udalak izena emateko bigarren epe bat ireki dezake, udalak adierazten dituen lekuetan, udal zerbitzu arduradunak txostena egin ondoren.

3.9. Jarduera adingabekoentzat bada, aitak, amak edo tutore edo ordezkariak ordaindu behar du jardueraren prezioa.

4. Jarduerak bertan behera uztea

4.1. Inskripzioak bertan behera uzteko 10 eguneko epea dago, jarduera utzi nahi duen pertsonak jardueran parte hartu ez badu. Epea jardueren eskaintzan adieraziko da. Epe hori amaitutakoan, ez da ordaindutako dirua itzuliko, baldin eta jarduera behar bezala eskaintzen bada.

5. Kirol jardueren ordainketak

5.1. Udalaren kirol jardueren tasa jardueren araudian zehaztuta dago.

5.2. Jarduerak kreditu txartelaz edo eskudiruz ordain daitezke, Udal Kiroldegian. Ordainketa izena emateko unean egin behar da.

5.3. Kasu batzuetan, egiten den jardueraren arabera, izena eman duen pertsonaren kontu zenbakia, 20 digituko, eskatu ahalko da, bankutik kobratzeko. Izena eman duen pertsonak ordaintzeko era hori onartzen ez badu, udal kiroldegian ordaindu beharko du, kreditu txartel bidez edo dirutan, adierazten zaizkion egunen barruan.

5.4. Ikastaroetan urte osorako edo hiruileko baterako eman ahal da izena, adierazten denaren arabera.

Jarduerak bertan behera uzteko epea amaitu ondoren borondatezko baja hartuz gero jarduera osorik ordaindu beharko da.

5.5. Inskripzio guztietan ordainagiri bat emango da, izena eman duen pertsonak ordainketa egin duela ziurtatzeko.

6. Kirol jardueretako itxaron zerrenda

6.1. Itxaron zerrenda dagoen taldeetan, baja bat gertatzen bada, itxaron zerrenda horretatik jardueran sartzen den pertsonak jardueraren prezioaren zenbateko proportzionala ordainduko du, jardueran sartzen den unearan arabera.

6.2. Izena emateko epe arruntetik kanpo alta hartzen duten pertsonak, jardueraren ehuneko 10 egin ez bada, jardueraren prezio osoa ordaindu behar dute.

Jardueraren ehuneko hori egin bada, berriz, alta berriek zati proportzionala ordainduko dute.

6.3. Izena emateko epea amaitutakoan, plaza hutsik badago, izena udal zerbitzu egokian emango da zuzenean.

7. Altak eta bajak kirol jardueretan

Ikastaro guztietan asistentziaren jarraipena egingo da. Izena emateko epean finkatzen den saio kopurua egiten ez duten pertsonen baja emango zaie jardueran. Itxaron zerrendako balizko eskaerari kasu egiteko hartuko da neurri hori.

Horrelakoetan ez da itzuliko ordaindutako kuota.

8. Beste batzuk

Iradokizunik edo kezarik aurkeztu nahi izanez gero, Dulantziko Udaleko Kirol Zerbitzuari zuzendu beharko zaio, idatziz.

Zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak gauzatzearen ondoriozko tasak arautzen dituen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua.-

Alegria-Dulantziko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 20 eta 25. artikuluetan ezarritakoarekin, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia eta uztailaren 13ko 25/1998 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik, tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie eranskinean jasotzen diren zerbitzu eta jarduerak emateagatik, Ordenantza honetako arauetan jartzten duen moduan, horren parte baitira.

2. artikulua.-

Ordenantza Alegria-Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zergapeko egitatea

3. artikulua.-

1.- Udal Administrazioak udal eskumenekoa den zerbitzua edo administrazio jarduera benetan ematea edo egitea izango da zerga egitatea, eskatu zaiolako, gizabanakoek egin dutenek edo egin ez dutenek zeharka eragin dutelako edo subjektu pasiboari eragiten edo onurarik ezartzen dion neurrian.

2.- Zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu hauek ezartzeak edo zabaltzeak sor litzakeen tasa bereziak ordaindu beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua.-

1.- Subjektu pasiboak, zergadun gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak zein Entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen dutenean.

2.- Hurrengoak zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak izango dira:

- Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badizkiete, horietatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Hauek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainaraziko dizkiete.
- Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraiketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.
- Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza-baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua.-

Hurrengoek ordaindu beharko dituzte tasak:

- Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu badituzte, eskatu duena.
- Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbitzuetatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokiena.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga-zorrak, subjektu pasiboarekin batera, Tarifak aplikatzeko arauetan -eranskinean ageri dira- aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua.-

Salbuespenak, hobariak eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. Zerga-oinarria

8. artikulua.-

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, dagokion tarifak dioen neurrian.

VI. Kuota

9. artikulua.-

Zerga kuota zehazteko, aurreko artikuluari darion oinarriari eranskinean jasotako tarifetatik dagokiona gehituko zaio, betiere hori aplikatzeko arauekin bat etorritz.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua.-

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko da. Hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua.-

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa Alegria-Dulantziko udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua.-

Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta zergen arau-hausturetan eta dagozkien zehapenak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek xedatutakoa aplikatuko da.

Eranskina

Zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak

1.- Hirigintza lizentziak emateko jarduerak

1.- Helburua

Hona hemen ordainarazpenaren helburua: eraikuntza jarduerak edo luraren erabilera egiaztatzeko udalak burutu behar dituen egintzak, tekniko eta administratiboak, edo eta alde zuzenetik udal baimena lortu beharra duten jardueren baimenak egiaztatzekoak, hirigintzari buruzko lege eta arauetan, eraikuntzari buruzko ordenantzetan eta eraikuntza, obra eta luraren erabilieraren alorrean ezar daitezkeen xedapenetan ezarritakoaren arabera, baldin eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zerga nahitaez ordaindu beharra ez badakar.

2.- Tarifak:

Ondokoak izango dira:

A) Lur zatiketak, bereizketak, finkak batzea.

- 1.000 metro karratu arte:
(metro karratuko) 0,03 euro
- 1.000 metro karratu baino gehiago eta 10.000 metro karratura arte:
(metro karratuko) 0,02 euro

- 10.000 metro karratu baino gehiago:
(metro karratuko) 0,01 euro

B) Lokalak eta Eraikinak ikuskatzea:

- Eskatzaileak proposatuta salaketarik gabe..... 34,50 euro

C) Hirigintza Zedulak, Ziurtagiriak eta Txostenak egitea:

- Hirigintza Zedula..... 34,50 euro
- Irizpena ematea behar duten ziurtagiriak eta txostenak..... 34,50 euro

D) Titularitatearen aldaketa:

Aldaketa sortarazi duen negozio juridikoarengatik Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordaindu beharko da.

E) Lizentziak luzatzea:

Likidatutako tasen eta eskubideen ehuneko 5 ordainduko da eta, gutxienez, 6,19 euro.

Tasa ofizioz likidatuko da, obra burutzeko epea amaitu eta gero, interesdunak luzapenak eskatu ez baditu ere, baldin eta hirigintzako legeriak baimena luzatzeko aukera ematen badu.

F) Lehenengo aldiz okupatzeko lizentziak eta beste baimen batzuk:

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan likidatutako eskubideen ehuneko 2 ordaindu beharko da.

3.- Aplikatu beharreko arauak

Baimen-eskabidea aurkezten den unean sortuko da tasa edo, baimenik eskatzen ez bada ere, Ordenantza honetan azaldutako tarifak ordaindu beharra dakarten egoerak gertatzen direnean.

2.- Establezimenduak irekitzeko baimena

1.- Helburua

Merkataritza, lanbide edo industriekin lotutako jardueretan aritzeko establezimenduak edo instalazioak edo lokalak zabaltzeko behar den baimena lortu aurretik eman beharreko zerbitzu tekniko eta administratiboak izango dira tasa honen helburua, bai eta jarduera horien lagungarri diren edo horiekin zerikusia duten espazioak zabaltzeko behar direnak.

2.- Tarifak

Zerga-kuotak tarifa hauen araberakoak izango dira:

- | | |
|---|---------------|
| 1. epigrafea.- Kalterik ez duen jarduera irekitzeko baimena..... | 158,92 euro |
| 2. epigrafea.- Ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren araberako tramitazioa egin behar ez duten jarduerak irekitzeko baimena..... | 383,40 euro |
| 3. epigrafea.- Ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera sailkatu diren gainerako jarduera-lizentziak..... | 1.024,74 euro |

3.- Aplikatu beharreko arauak

- a) Baimen-eskabidea aurkezten den unean sortuko da tasa edo, baimenik eskatzen ez bada ere, hurrengo arauan adierazitako kasuren bat gertatzen denean.
- b) Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzeko baimena lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:
 - Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzueterako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala abiarazi, funtzionatu edo ireki ez.
 - Lokalez aldatzea.
 - Establezimenduan ematen den jardueraren aldaketa, nahiz eta izena, titularrak edo lokala berdinak izan.
 - Jarduera zabaltzea; Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota handituz gero horrelakorik egon dela ulertuko da, salbu eta igoera hori zergak aldatu direlako gertatzen bada.
 - Lokalak handitzea.

- c) Baimena emateko erabakia hartu ondoren, interesdunek uko egin ahal diote baimenari. Hori gertatuz gero, eta eman izanaren jakinarazpenaz geroztik hogeita hamar eguneko epean egiten bada uko, ordaindu duten tasaren ehuneko 80 itzultzeko eskubidea izango dute edo, aurretik ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 ordainduko dute; eman izanaren jakinarazpenaz geroztik hogeita hamar eguneko epea igaro ondoren baina hiru hilabeteko epearen barruan egiten bada uko, itzuli edo ordaindu beharrekoa ehuneko 50 izango da.
- d) Baimena eman eta hiru hilabete igaro ondoren establezimendua edo lokala ireki ez bada, baimenak zein ordaindutako tasa iraugintzat joko dira. Gauza bera gertatuko da ireki ondoren berriro ixten badira, edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja emanda badaude sei hilabeteko epean, salbu eta irekitzea berandutzen duten edo adierazitako denboran lokala itxiarazten duten ezinbesteko arrazoiak direla medio; horrelakoetan aztertu egin beharko da zein gertaera izan den eragilea.
- e) Ez zaie zerga ezarriko indarreko arauetara egokitzeko baimena emateko prozedura izapidetu beharrik ez duten baimen-eskualdaketei.
- f) Tasa hau autolikidazioaren prozeduraren bidez bildu ahalko da.

4.- Establezimenduak Irekitzeko Baimenaren Tasan beherapen bat egongo da honako kasu hauetan:

- Merkataritza-sozietate diren enpresa berriak irekitzen direnean, kontratatzen den langile finko bakoitzeko ehuneko 15eko hobaria izango dute kuotan, eta kontratu horiek behintzat bost urtez mantendu behar dira. Gehienez kuotaren ehuneko 50eko hobaria lor daiteke.
- Kooperatiben edo enpresaburu autonomoen izaerako enpresa berri bat irekiz gero, bazkidearen edo autonomoaren langile finko bakoitzeko ehuneko 15eko hobaria izango dute, aurreko kasuko baldintzak betetzen baditu

Bost urteko epean kontratuak ez badira mantentzen, onuradunek jasotako fondoak itzuli beharko dituzte gehi diru horri legez dagokion interesa.

Hobari horiek lortzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute interesdunek:

- Eskaera.
- Enpresa Proiektua.
- Sortu beharreko lanpostuen zerrenda.

Hileta zerbitzuak eta udal hilerrietako jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia arautzen dituen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 20. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, tasak finkatu eta eskatzen ditu ordenantza honetan udal zerbitzu hauek egiteagatik: hileta zerbitzuak, udal hilerrietan ematen diren gainerako zerbitzuak eta udal hilerrietako jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia.

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

2. artikulua

Zerga gaia da zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio jarduerak egitea, baldin eta subjektu pasiboei badagozkie edo batez ere haiei eragin edo onura ematen badiete, 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Halaber, tasa hauen zerga gaia da udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia, 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. artikulua

Tasa hau ordaindu beharra finkatzen duen egitezko oinarri da udalak udal hilerriaren zerbitzu publikoa ematea eta udal hilerrietan jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia izatea.

III. Subjektu pasiboak

4. artikulua

1.- Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo tasa ordaindu beharra dakarren toki zerbitzuaren onuraz gozitzen badute edo hark eragiten badie.

IV. Zerga oinarria

5. artikulua

Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zer zuzeneko gastuk edo zeharkakok osatzen duten zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa; baita zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnak.

V. Zerga kuota

6. artikulua

Lehenengo tarifa: ehorzketak eta lurpetik ateratzeak

a) Ehorzketak:

Panteioia	131,45 euro
Horma hilobia	114,27 euro
Hobi komuna	46,13 euro
Kolunbarioa	51,25 euro
Hilobia	414,18 euro

Hainbat gutxitutako gorpuzki edo errautsak aldi berean ehorzten direnean zerbitzu bakarra kobratuko da.

b) Gorpuzkiak hilobitik ateratzea:

	5 urte arteko gorpuzkiak	5 urte baino gehiagoko gorpuzkiak
Panteioia	258,34 euro	129,27 euro
Horma hilobia	242,35 euro	121,18 euro
Hobi komuna	339,07 euro	169,54 euro
Kolunbarioa	51,25 euro	51,25 euro
Hilobia	339,07 euro	169,54 euro
Haurrentzako hilobia	153,75 euro	76,88 euro

Bigarren tarifa: zaindu, mantendu eta garbi tze zerbitzuak

Hilerrria zaindu, mantendu eta garbitze zerbitzuengatik honako kuota hau eskatuko zaie urtero hilobi eskubideen titularrei:

Panteioia	21,71 euro
Horma hilobia	6,86 euro
Kolunbarioa	5,13 euro
Hilobia	6,86 euro

Hirugarren tarifa: hilobi eskubideen kontzesioak edo kontzesioen luzapenak

Horma hilobia	772,65 euro
Horma hilobia 25 urterako	456,95 euro
Horma hilobia 10 urterako	228,58 euro
Horma hilobia 5 urterako	114,19 euro
Kolunbarioa	386,32 euro
Kolunbarioa 25 urterako	228,47 euro
Kolunbarioa 10 urterako	114,29 euro
Kolunbarioa 5 urterako	57,09 euro
Hilobia	228,58 euro

Erabilera publikoa dela eta, udalak emakida berreskuratzea erabaki dezake, ezarritako epea iraungi baino lehen. Dena dela, emakida ez da inoiz 75 urterako baino gehiagorako emango.

Hilobiaren kontzesioa 10 urterako izango da gehienez ere, eta hura amaitzen denean gorpuzkiak hilobitik atera eta hobi komunera eramango dira, baldin eta epea amaitu baino 3 hilabete lehenago eskatzen ez bada beste hilobi batean sartzeko. Kasu honetan, zerbitzu horri dagozkion tasak ordainduko dira.

Laugarren tarifa: hilobi eskubidearen titulartasun aldaketa

a) Inter vivos:

Hilobi eskubide baten titulartasuna eskualdatzeagatik 76,88 euroko tasa ordaindu beharko da.

Tasa hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira ezkontideen edo antzeko egoeretako kideen eta bigarren mailara arteko arbasoen edo ondorengoaren arteko eskualdaketak, bai eta udalarentzako dohaintzak direnak ere.

b) Mortis causa:

Ez dira ordaindu beharko baldin eta eskualdaketa testamentu edo legezko oinordekoaren aldekoa bada. Hala ere, udalari egindako emakidaren berri eman beharko zaio, bai eta haren egiaztagiriak eta titular berriaren izena ere.

Bosgarren tarifa: jardunak panteoietan

Panteoietan edozein aldaketa egin nahi bada, tasa hauek ordaindu beharko dira:

Panteoiak aldatzeko obra baimena	73,80 euro
Panteoiak konpondu edo txukuntzeko obra baimena	36,90 euro

7. artikulua

Tarifa hauek urtero eguneratuko dira 2025tik aurrera, erreferentzia gisa hartuta aurreko urteko irailaren 30eko EAEko urtearteko KPIaren aldakuntza, beste aldaketarik ezarri ezean.

VI. Sortzapena eta zergaldia

8. artikulua

Hilerrria zaindu, mantendu eta garbitze zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak dagokion hilobi eskubidea ematen den urtearen ondorengo urte natural bakoitzaren lehen egunean sortuko dira. Titulartasun aldaketek hurrengo zergalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Interesdunak eskatuta aurkezten diren emakida, baimen edo zerbitzuengatik aurreko tarifen jasotako eskubideak sortuko dira kasuan kasuko tituluak edo baimenak emateko eskatzen den momentuan bertan.

VII. Tasak likidatzea eta ordaintzea

9. artikulua

Hilerrria zaindu, mantendu eta garbitze zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak urtero ordainduko dira ordainagiri bidez, eta ezin izango dira ez hainbanatu, ezta murriztu ere.

Hilobi eskubide baten titulartasuna eskualdatzeagatik ordaindu beharreko tasaren kuota udal bulegoetan ordainduko da hilabeteko epearen barruan interesdunari aldaketa onartu dela jakinarazten zaion egunetik.

Gainerako tasen likidazioa ordainketa bakarrean egingo da udal bulegoetan hilabeteko epearen barruan interesdunari hilobi eskubidearen berri ematen zaion egunetik aurrera.

Administrazioak, hala ere, eskaera erregistratzen denean likidatu eta ordaintzeko eskatu ahal izango du.

VIII. Tasen kudeaketa

10. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta indarreko lege xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Xedapen iragankorra

Tasa hauek balio gabetu egiten dituzte udal hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantzan jasotakoak.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Administrazio zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin, tasak ezarri eta eskatzen ditu ordenantza honetan, zerbitzu publikoak emateagatik edo honako jarduera hauek egiteagatik:

- I. epigrafea. Agiriak jaulki eta ematea.
- II. epigrafea. Autotaxien eta alokairuko gainontzeko ibilgailuen lizentziak edo administrazio baimenak ematea.
- III. epigrafea. Podologia zerbitzua.
- IV. epigrafea. Arriskutsuak izan litezkeen animalien lizentziak eta erregistroa kudeatzea eta bestelako zerbitzuak.
- V. epigrafea. Herrigune historikoko oinezkoen gunera sartzeko txartelak ematea.

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatzen da.

II. Zerga egitatea

2. artikulua

1. Zerga egitatea da zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio jarduerak egitea, baldin eta subjektu pasiboak badagozkie edo batez ere haiei eragin edo onura ematen badiete, 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola edo hari erreferentzia egiten diola ulertuko da, baldin eta subjektu pasiboak berak eragin badu, zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz Dulantziko Udalak ofiziosz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiengatik, herritarrak zerbaitez hornitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.

3. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.2/3

III. Subjektu pasiboak

3. artikulua

1. Subjektu pasibo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2. Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileei onura eman edo eragiten dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun higiezin horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkokoak, eta haiek kuotak ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei, hala dagokionean.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

4. artikulua

Salbuespenak, murrizketak, hobariak eta beste zerga onura batzuk onartzerakoan, bete egin beharko da ordenantza honetan xedaturikoa.

V. Zerga oinarria

5. artikulua

Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zer zuzeneko gastu edo zeharkakok osatzen duten zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa, baita zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnak.

VI. Kuota

6. artikulua

1. Zerga kuota zehazteko, ordenantza honen epigrafeetan jasotzen diren tarifetatik dagokiona aplikatuko da, betiere hura aplikatzeko arauekin bat etorriz.

VII. Sortzapena eta zergaldia

7. artikulua

Tasa noiz sortzen den:

- Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hastearekin batera; nolana ere, lanari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.
- Jarduera edo espedientea abiarazteko eskaera aurkezten denean, zeina ezin izango baita egin edo izapidetu ordaindu beharrekoa ordaindu arte. VIII. Likidazioa eta ordainketa

8. artikulua

Dulantziko udal administrazioak egingo ditu kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak, kasuan kasuko tarifetan jasoriko ordainarazpen bakoitzaren arau berezien arabera. Dena den, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

XI. Tasen kudeaketa

9. artikulua

Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak eta indarreko lege xedapenek ezarritakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian. 3/3 Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. epigrafea. Agiriak jaulki eta ematea.

I. Aplikazio-arauak

1.a- Tasa honen xedea da interesdunak eskatuta, eskaera alde aurretik eginda, agiriak jaulkitzea eta ematea.

2.a- Tasak zergapeko egitatea sortzen duen idazkia, eskabidea edo agiria aurkezten denean ordainduko dira.

3.a- Zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dute, eta, ezarritako tasa ordaindu ezean, ez da zerbitzuaren xedea emango.

4.a- Ez da inolako hobaririk emango honako tarifa hauetan adierazitako zerga kuoten zenbatekoetan.

II. Tarifak

1.- Egiatziak:			
-Azken 5 urteetako udal akordio eta agirienak	0,60	Euro orriko	
-Azken 5 urteetatik gorako udal akordio eta agirienak	0,80	Euro orriko	
2.- Agiriak euskarri informatikoan ematea:			
-Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruzko agiriak (CD ROMen)	20,00	Euro CDko	
-Gainerako agiriak (CD ROMen)	10,00	Euro CDko	
-Gainerako agiriak (DVD ROMen)	45,00	Euro DVDko	
3.- Alegria-Dulantziko Udalean ondorioz izan behar ez duten agiriak konpultsatzea eta erkatzea:			
-Agiriak oro har	0,10	Euro orriko	
4.- Fotokopiak ematea			
	Euroak	Euroak	Euroak
Neuria	Arrunta	Murritzua	Handitua
DIN A-4	0,15	0,20	0,20
DIN A-3	0,30	0,40	0,40
Koloretan izanez gero, tarifak ehuneko 100 handituko lirateke.			
5.- Planoak eta bestelako agiriak erreproduzitzea			
Gasteizen kokaturiko merkataritza-establezimendu bateko makineria behar izanez gero, 20 euroko tasa gehi fakturaren kostuaren ehuneko 100 kobratuko da.			

II. epigrafeak. Autotaxien eta alokairuko gainontzeko ibilgailuen lizentziak edo administrazio baimenak ematea.

I.- Zerga egitatea

1. artikulua

Tasa honen zerga egitatea da martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onetsitako Automobil Arinen Hiri Barruko eta Hiriartero Garraio Zerbitzuen Erregelamendu Nazionalen aipatzen diren autotaxien eta alokairuko gainontzeko ibilgailuen lizentzietan jarraian adierazten diren zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea:

- Autotaxi lizentziak jaulkitzea eta ematea.
- Autotaxi lizentziak erabiltzea eta ustiatzea.
- Lizentziaren xede den ibilgailua ordezkatzeko baimena.
- Lizentziak eskualdatzeko baimena, ematea dagokionean.

2. artikulua

Titularraren heriotzak, ezintasunak edo erretiroak eragindako titulartasun aldaketak, haren ezkontidearen edo legez antzeko egoeran dagoen pertsonaren eta haren seme-alaben alde, ez dira eskualdatzat joko.

II.- Subjektu pasiboak

3. artikulua

Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Lege Orokorraren 35.4. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak:

- Lizentziaren emakidaren eta jaulkipenaren onuradun den pertsona edo entitatea, edo lizentziaren eskualdatzearen xede dena.
- Ordezkatuko den ibilgailuaren lizentziaren titularra.

III.- Zerga kuota

4. artikulua

Lehen tarifa: autotaxi lizentzia emateagatik eta eskualdatzeagatik

Kuota bakarra: 300 euro

Bigarren tarifa: ibilgailua ordezkatzeagatik

Kuota bakarra: 25 euro

Hirugarren tarifa: lizentzia erabiltzeagatik eta ustiatzeagatik

Urteko kuota: 25 euro

IV. Tasen sortzapena, likidazioa eta ordainketa

5. artikulua

- Lizentzia erabiltzeagatik eta ustiatzeagatik tasa urte natural bakoitzeko lehen egunean sortuko da, lizentzia ematen den urtean eta lizentzia ematen den egun berean. Tasa urtekoa, hainbanaezina eta murriztezina da, eta ordainagiri bidez kobratuko da.
- Lizentziak emateagatik edo eskualdatzeagatik tasa: lizentzia ematen den unean, haren emakida edo eskualdatze data edozein izanda ere.
- Ibilgailua ordezkatuz gero, ordainketa ibilgailua ordezkatzeko baimen eskaerarekin batera egingo da.

III. epigrafea. Podologia zerbitzua.

I. Xedea

Tasa honen xedea da Alegria-Dulantziko udalerrian erroldatutako 60 urtetik gorako pertsonen edo ezintasun egoera bereziengatik podologia txartela jaso duten pertsonen podologia zerbitzua erabiltzea.

Zerbitzua Alegria-Dulantziko jubilatuen zentroan ematen da. Interesdunek Alegria-Dulantziko udaletxean egin beharko dute eskaera, NANA, agiri neurriko argazki bat eta erroldatze ziurtagiria ere aurkeztuta.

II. Tarifa

Erabiltzaileek 6,15 euro ordaindu beharko dituzte zerbitzuko, hura jasotzen duten unean.

IV. epigrafea. Arriskutsuak izan litezkeen animalien lizentziak eta erregistroa kudeatzea eta bestelako zerbitzuak.

I. Xedea

Hauek dira tasa honen xedeak:

- Arriskutsuak izan litezkeen animalien lizentzia ematea edo berritzea.
- Arriskutsuak izan litezkeen animalien erregistroan inskribatzea.
- Animalia abandonatuak eta kalekoak jasotzea, instalazio egokietara eramatea, mantentzea eta haiekin loturiko bestelako zerbitzuak.

II.- Subjektu pasiboak

Subjektu pasiboak dira tasa honen zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten edo horien onuradun diren pertsona fisiko eta juridikoak.

III.- Zerga kuota

Lehen tarifa: arriskutsuak izan litezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emateagatik edo berritzeagatik

Emakida eskatzen den unean ordainduko da, edo, bestela, 5 urtean behin lizentzia berritzeko eskaera egiten denean.

Bigarren tarifa: arriskutsuak izan litezkeen animaliak udal erregistroan inskribatzeagatik

Tasa 10 eurokoa da eta erregistroan eskaera egiten denean ordainduko da.

Hirugarren tarifa: lizentzien kopiak emateagatik

Tasa 3 eurokoa da.

Laugarren tarifa: animalia abandonatuak eta kalekoak jasotzeagatik, instalazio egokietara eramateagatik, mantentzeagatik eta haiekin loturiko bestelako zerbitzuak emateagatik

Tasa ordainduko da zerbitzuak Udalari dakarkion kostuaren arabera.

IV.- Sortzapena

Ordaintzeko betebeharra kasuan kasuko zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko da.

V.- Kudeaketa

Tasak autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango dira, hala badagokio.

Xedapen iragankorra

Ordenantza hau indarrean sartzean denean animalia arriskutsu bat edukitzeko administrazio honek emandako lizentzia dutenek 15 eguneko epea izango dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik, arriskutsuak izan litezkeen animalien udal erregistroan inskriba dadila eskatzeko.

V. epigrafea. Herrigune historikoko oinezkoen gunera sartzeko txartelak ematea.

I. Xedea

Tasa honen gaia da Dulantziko herrigune historikoko oinezkoen gunera sartzeko modua ematen duen txartela edo agintea ematea, eremu horretarako sarbidearen kontrola arautzen duen ordenantzan ezartzen diren baldintzen arabera.

II. Zerga kuota

Hirigune historikoko oinezkoentzako gunera sartzeko kontrola arautzen duen ordenantzaren laugarren artikuluan ezarritako titularrek honako kuota hau ordainduko dute ematen zaizkien txartel edo aginteengatik:

	Kuota txartel edo aginte bakoitzeko
Lehenengo txartela edo agintea	Doan
Galtzeagatik, suntsitzeagatik edo hondatzeagatik eskatutako txartel edo aginte gehigarriak	Kostuaren ehuneko 125